

Arrasate

UP RE S S

1996ko
Urtarrilak 19
304. zenb.

ELKARRIZKETA

**Javier
Villanueva**

KULTURA

**Jon
Ozaeta**

IKUSPEGIA

**Karmele
Perez**

IRITZIA

**Nekane
San Miguel**

HIRIGINTZA

**Uharkapeko
horma
bukatzear**



**Makinaren
erritmoan**



markeliñe

antzerki taldearen eskutik

KALE GORRIAN LA GARBOSA

(HITZIK GABEKO ANTZERKIA)

Amaia Antzokian

**Urtarrilak 19 eta 20an
(Ostirala eta Larunbata)**

Gaueko 10.30etan

Sarrera: 800 pta.

(Gazte Txartelarekin 600 pta.)



ARRASATEKO UDALA

Azpeitian ospatutako Euskadiko XIII. Antzerki Topaketetan lortutako sariak: Ikusleen Saria eta Kritikaren Saria

ALTZARIAK Berango

**5 URTEKO
GARANTIAZ**

SUKALDERAKO EKIPAMENDU OSOA



- Bainu altzariak
- Armairu enpotratuak

Banatzailea:

FAGOR

aspes

DeLonghi

ERAKUSKETA

Legarre Pabilioia, z/g
Gipuzkoa Etorbidea
ARRASATE Tfnoa: 79 01 92

Kantitatea ala kalitatea?

Zalantzarik gabe, gaztelera euskera baino zaharragoa dela esan zidan elebidun deitutako ikasle talde batek. Zergatik? Hiztun gehiago dituelako. 13 urteko ikasleen logika ote da bakarrik?

Egia esan, mila aldiz entzun dute historiaren ikerketak alderantzizkoa erakusten digula eta urtetako prozesu eta eragin konplexuren ondorio dela egungo egoera. Halere, interes faltak, gurasoen eraginak, sustrai sakonen gabeziak, egungo egoera nahasiak, ala auskalo zerk, objetiboak diren zenbait egia gogoratzea eta zenbaitetan sinistea ere eragozten diela dirudi.

Hortik hizkuntzen berezko eskubideez eztabaidatzera pasatu ginen.

Ez zuten ikusten eta ulertzen euskaraz bizi nahi duen euskaldunak bere egunero-ko ibilbidean hamaika oztopo aurkitzen dituenik eta, zinez, euskalduna ezin dela euskaraz bizi Euskal Herrian. Eta nork esango digu hau ez dela kontraesan bat?

Elebidun deitutako hauek, eta "deitutako" diot, benetako elebidun bi hizkuntzak menperatzen ditugunok garelako, beraiek dituzten zailtasunak eta jasaten duten bazterketa baino ez dute ikusten: hemen erdaldunen seme-alaba direlako,


eta han, hemen jaio edo hemen bizi direlako eta, noski, dena pegatzen da. Alde batean zein bestean egiten dute topo gaitzespenaren hormarekin eta benetako funtsik ez duten maitasun eta gorrotoen gordeleku bihurtzen dira.

Kontraesan horren lekuko izanik eta euskaradunon kantitatea areagotzen ari diren arren, zer egiten ari gara guztiok euskaldunon kalitatearekin? Gure etorkizuna ez baitute Kultur Departamentuko estatistikek ziurtatuko, ez gai guztien politizazioak salbatuko, ezta "besteen" lanak zilegiztatuko ere.

Guztiok gara egungo egoeraren zein etorkizunaren erantzule. Baita estatistikek jasotzen dituzten elebidun deitutako horiek ere.

Baina nola lortu askorengan gorroto eta desmotibazio bihurtutako hori maitasun eta ilusio bihurtzea? Are gehiago gutako askorengan ere horrela bihurtu direnean... Nekea, pasotismoa, asperkeria ala ukapena ez dira eredu onak nahi eta ez nahi herriaren atal diren eta noraezean dabilzan hauentzat. Ez al guke guztion kalitatea hobetzeko lanetan ihardun behar?

KARMELE PEREZ



LOGOPEDIA

ZENTRUA

ARRASATE

HIZKUNTZ ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE

Memesa

79 42 22




ARRASATEKO UDALA

Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Euzko Jaurilaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Leguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Publizitatea:** Jasone Mendizabal eta Alberto Garro (77 08 15). **Administrazioa:** Ikere Allube (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Arantzasu Loidi, Mikel Irizar, Blanca Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karmele Perez, Sorginak, Kopi, Daniel Goikolea, Amaia Mariartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Rafa mungia, Mario Egües, Rufina Ollasagasti, Alazne Portu, Erdur-AEK euskaltegia. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta-AED. (Tfnoa: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.200. **Logo-Gordailua:** 1124/88. ISSN: 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Ohati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Maider Egües, Goio Arana

Informe soziologikoa?... Ja!

Hori da azken aldian darabiltena ahotan komunikabide guztiak, informe soziologikoak gora eta informe soziologikoak behera.

Baina... zer da informe hori? Norentzat da zuzendua informe demontre hori? Zeintzuk dira helburuak?... badi-rudi Eusko Jaurilaritzak eskatua izan dela, eta hain fama-tua egin "Plan ZEN" delakoa zaharkituta gelditu eta "informe soziologiko" baten itxuraz gaztedia kriminalizatu eta zigortzeko beste sistema berri eta berritzaile bat kaleratu dute. Eureka!

Oraingoan beharbada usteko dute sistema ustel eta menperatzaile honen aurka borrokatzeari utziko diogula edo demokraziaren dantzan botua eman eta isiltzen ikasiko dugula edo ezer egin gabe intsumisoak kartzelaratzeko utziko ditugula edo guztiontzat lana eta askatasun indibidualak ez gaituela arduratuko edo gure herriarentzat independentzia lortzeko bidean alde borrokatzeari utziko diogula edo...

Jai daukate euren buruari soziologo deitzen dioten horiek hori uste badute, euren bidea zipayo eta juez faxista batzuen jipoi eta zigortzetan oinarritzen bada jai daukate, gaztediak ondo ikusten du herri honekiko eta herri-tarrekiko burutzen diren injustiziak eta horren aurka borroka egingo du bere indar guztiakin, arazoak konpon-tzen ez diren bitartean eta horretarako benetako bideak jartzen ez diren bitartean.

Azkenik gogorarazi komunikabideei zeuen lana gauza batzuk estali eta beste batzuk puztea den bezalaxe, oraingoan gogorkeria polizialari bidea egitea da,

edozein gazte abertzale eta borrokalari egurtu ezkerro dena justifikatuta egon dadin, baina ez pentsa dena dohain izango zaizuenik.

Errepresioaren aurrean, gaztedia jo ta ke!

ARRASATEKO JARRAI

Mundu zoroa

Sorpresa kutxa bat da Yeris Boltsin jauna. Kamaren aurrean mozkortuta agertzen ez denean, emakumezkoei xirrika, kantuan edo jendea erahiltzeko aginduak eman- ez ikusi dugu. Sorpretxa txarrak beraz errusiarren mandariak eskaintzen dituenak.

Aurretik antzerakoak eginda zituen, probokazio txikienari eraso gogorarekin erantzunez. Aste honetan egindakoak ez du horregatik inor harritu behar. Behin jotzeko aukera hartzen duenak, behin baino gehiagotan jotzeko ere har dezake. Askotan gertutik ikusita ez da ondo jakiten zer gertatzen den, eta hain urrutitik ikusita gutxiago. Beraien segurtasuna ziurtatzeko jende xehe- az baliatu ziren txetxeniar- rak; ezertan sartu nahi ez zuen jendea borrokaren erdian sartu eta borrokatik libre irte-

tzeko erabiliz. Salatzekoa dirudi jarrera horrek. Edozein modutan, jendea bahitzeare- na, di-da hartutako erabakia izango zelakoan nago. Behin egoera hori zela, Yeltsinen lehen erabakia, pentsatzeko nahikoa denborarekin hartu- takoa, txetxeniarrek ingura- tzea izan zen. Bigarrena, egun batzuk berbetan ibilita, tan- ke eta hegazkinen eraso- agintzea. Pentsatzea horrela- ko batek agintzen duela mun- duko herrialde aberats eta boteretsuenetariko batean. Zoroak agintari.

I.A.

Mila esker

Kaixo lagun: Urtero eus- kal errepresaliatuen aldeko kanpaina ekonomi- koa bultzatzen du Amnistia- ren aldeko Batzordeak. Elkar- tasun ekonomikoa, elkartasun politikoa eta humanitarioa den heinean, kanpaina hau ezinbestekoa da euskal erre- presaliatuak bizi baldintza minimo batzutan bizi ahal izateko.

Diru bilketa hau aurrera eraman duen gizatalde horren borondatea eta lana beha- rrezkoa izanik, eskerrak ematen dizkizuegu. Aportazio ekonomikoa egin duzuen den-

dari guztiei gure esker onak bidaltzen dizkizuegu ere.

Besterik gabe mila esker eta gure besarkadarik beroe- na.

ARRASATEKO AMNISTIAREN ALDEKO BATZORDEA

Autoak bizkorregi

Ez dakit zer gertatzen den azkenaldian, baina auto- ak abiada handian ibiltzen dira kalean, handiegian. Agian jende askok kotxe berria ero- si duelako izango da eta ko- txe horrek orain artekoak ez bezala, demaseko abiadan joan eta bapatean frenatzeko aukera eskaintzen dutelako. Kontua da errepidea alde batetik bestera pasatzea gero eta arriskutsuagoa dela, adi- nean aurrera goazenondako batez ere.

Badago berez, gehienez- ko abiada errespetatu beha- rra herri barruan, baina ez dut uste gehiegi errespetatzen denik, zoroak bezala ibiltzen dira asko eta.

Ertzantza kalean ibiltzen da, eta nik eskatu nahi diot gehiago kontrolatzeko auto- en abiada, lasai bizi nahi dut eta.

M. E.

Gida 96

GIDA benetan erabilgarria izatea nahi dugu, eta horretarako berriz ere zure lagun- tzaren beharrea gaude. Zure telefonoa agertzen ez bada edo akatsen bat aurkitzen badu- zu 77 08 15 telefonora deitu edo etor zaitez ARKOra (Azoka, 1).

Otsailaren 23an orrialde berezi bat kaleratuko dugu eta bertan GIDAn gaizki eginda- koak ondo jarriko ditugu.

Beste behingoz, eskerrik asko zuen laguntzagatik!

Uste duzu E.H.ko gatazka noizbait konponduko dela?




Angel Segovia
Ikaslea
(19 urte)

Ez dakit, idearik ere ez.



Saioa Alberdi
Ikaslea
(15 urte)

Nik uste dut poliki-poliki konponduko dela. Oraindik ez dago asmorik baina nik uste dut konponduko dela.



Agustin Letona
Administraria
(37 urte)

Noski konponduko dena. Negoziaketa baten bidez konponduko dela uste dut.



Esperanza Valvas
Etxekoandrea
(49 urte)

Ez dakit. Nahi izango balute posible litzatekeela uste dut, baina nahi ez badute...



Iker Zugasti
Ikaslea
(19 urte)

Zer problema? Aldaiarena eta hori? Ez dakit, nik baietz uste dut, ia problema konponduta dagoela.



Marga Apaolaza
Langilea
(35 urte)

Ez. Gero eta okerrago dago dena.



Gerardo Urzelai
Jubilatua
(69 urte)

Oraindik gatz ikusten dut nik hori. Inon ez da elkartasunik ikusten.



Miren Odriozola
Langilea
(29 urte)

Bai. Nik uste dut pazientzia askorekin konponduko dela.



ALDASORO ZAPATADENDA

Gabonetan, Bergarako eta Oñatiko dendetan, egin dugun zozketaren irabazlea Isabel Sanz bergararra izan da. Zorionak eta mila esker parte hartu duzuen guztioi!

BERGARA • OÑATI

BEHARREZKO TELEFONOAK

Erretxak
 Arrasateko Eskualde-Ospit.79 53 00
 Iguualtorioa79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak)79 39 00
 (emakumeak)79 44 11
 Buru osasunerako zentrua79 90 11

Gurutze Gorria
 Bergara76 55 76

DYA
 Antzuola76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdia)79 13 57
 • Txanda hartzeko: medikuntza
 orokorra eta pediatria77 03 46
 • Espezialitateak77 05 78
 77 12 64
 Oñati78 08 52
 Eskoriatza79 98 58
 Aretxabaleta79 74 58
 Aramaio(945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulanziaz45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati78 04 11
 Bergara76 14 69
 Arrasate79 14 39
 Aretxabaleta79 10 52
 Eskoriatza088

Ertzaintza
 Arrasate79 71 99

Suhiltzaileak
 Udaltzaia79 09 00
 Udaltzaia suhiltzaile burua79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea088

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua)79 09 00
 Elektrizitatea (Iberduero)12 01 62
 Gasa900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak79 12 22
 P.E.S.A.79 14 19

Hirugarren adinekoendako zentruak
 Iturbide Egoitza79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza79 81 57

Kontsumitzailearendako informazioa
 KIUB-OMIC79 51 55

Monterrongo liburategia
 Monterron77 01 05

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 19
 Egunez eta gauzez: Azkoaga. Ferrerías.

Larunbata 20
 Egunez eta gauzez: Español. Iturriotz.

Igandea 21
 Egunez eta gauzez: Corcuera. Musakola.

Astelehena 22
 Egunez eta gauzez: Irizar. Erguin.

Asteartea 23
 Egunez eta gauzez: Amezua. Santamaina.

Asteazkena 24
 Egunez eta gauzez: Ruiz. Maala.

Osteguna 25
 Egunez eta gauzez: Morales. San Andres.

19 OSTIRALA

- **ZINEA**
 "Mortal Kombat". 7etan eta 10etan.
- **ANTZERKIA**
 Markeliñe taldearen, Kale Gorrian-La Garbo S.A. obrak. Gaueko 10.30etan, Amaia antzokian. Sarrera 800 pta. eta gazte txartelarekin 600.

20 LARUNBATA

- **ZINEA**
 "Mortal Kombat". 5etan, 7.30etan eta 10etan.
- **TXATXILIPURDIREN LUDO-TEKA IBILTARIA**
 Txatxilipurdiren ludoteka ibiltaria San Andresko alkatetzan izango da, goizeko 11etatik ordubata arte.
- **ANTZERKIA**
 Markeliñe taldearen, Kale Gorrian - La Garbosa obrak. Gaueko 10.30etan, Amaia antzokian. Sarrera 800 pta. eta gazte txartelarekin 600.
- **BERTSO AFARIA**
 Garagartzako Leze Txikin, gaueko 10etan. Bertsolariak: Andoni Egaña eta Angel Mari Peñagarikano. Afariaren prezioa: 3.000 pta.

21 IGANDEA

- **ZINEA**
 "Mortal Kombat". 5etan, 7.30etan eta 10etan.
- **DIPOSITIBA EMANALDIA**
 Alberto eta Felix Iñurrategiren diapositiba emanaldia. Gaiak: Cho Oyu eta Lhotse. Arratsaldeko 7etan, Aretxabaletako Zaria zineman. Murruxikok antolatuta.



IÑURRATEGI ANAIEN DIAPOSITIBA EMANALDIA
Felix eta Alberto Iñurrategik Cho Oyu eta Lhotse espezidiei buruzko diapositiba emanaldia eskainiko dute. Aretxabaletako Zaria zineman, arratsaldeko 7etan, domekan. Murruxikok mendi taldeak antolatuta.

PARTXIS TXAPELKETA

Bionak antolatuta. Urtarrilaren 29an hasiko da. Izenematea, urtarrilaren 24a baino lehen. Bikote bakoitzak 1.500 pta. ordaindu beharko du izena ematerakoan.

IRRATI IKASTAROA

Arrasate irratan, 16 urtetik gorako gazteei zuzenduta. Bi aukera: irratsaioak egiten edo kontrol teknikoa nola eraman ikastea. Otsailaren 28tik maiatzaren 22ra, guztira 24 ordu. Asteazkenetan arratsaldeko 7etatik 9etara. Matrikula 3.000 pta; gazte eta langabetuentzat 1.500 pta. Izenematea gazte bulegoan.

22 ASTELEHENA

- **ZINEA**
"Homicidio en primer grado".
7etan eta 9.30etan.
- **EUSKAL HERRIA ASKATU**
Herriko plazan, 7.30etan.

23 ASTEARTEA

- **ZINEA**
"Homicidio en primer grado".
7etan eta 9.30etan. Ikusle-aren eguna.
- **SENIDEAK-en ENKARTE-LADA**
Presoen Euskal Herriratzea eskatzeko, 7etan, Seberon.
- **BATZAR NAGUSIAREN PRESTAKETA**
San Frantzisko Xabier ikastola-ko batzar nagusiaren prestatketa. Gaia: estatutuen aldaketa. Gazteluondoko aretoan, arratsaldeko 6etan.

24 ASTEAZKENA

- **BATZAR NAGUSIAREN PRESTAKETA**
San Frantzisko Xabier ikastola-ko batzar nagusiaren prestatketa. Gaia: estatutuen aldaketa. Uribarriko ikastolan, arratsaldeko 6etan.

25 OSTEGUNA

- **BATZAR NAGUSIAREN PRESTAKETA**
San Frantzisko Xabier ikastola-ko batzar nagusiaren prestatketa. Gaia: estatutuen aldaketa. Santa Teresako ikastolan, arratsaldeko 6etan.
- **HITZALDIA**
Gaia: Kode penal berria. Hizlaria: Alvaro Marcet, Kakitzako kidea. Monterronen, 7etan. Arrasateko Antimilitaristek antolatuta.

BAZKARIA SAGARDOTEGIAN

Besaidek antolatuta, urtarrilaren 28an. Irteera: Amezketa-Balerdi-Betelu, ondoren bazkaria sagardotegian. Izenematea urtarrilaren 23, 24 eta 25ean. Arratsaldeko 7.30etatik 8.30etara.



EMAKUMEENDAKO IKASTAROA

Arrasateko Udalaren Emakume Sailak, emakumeendako prestakuntza eta lanbide ikastaroa antolatuta du. Irakatsiko diren edukiak: lan kontratuak, etxeko emakume langileen eskubideak eta betebeharrak, geriatría eta elikaduren manipulazioari buruzko ezagutzak. Iraupena: 3 hilabete. Eskolak arratsaldez emango dira. Betebeharrak: Arrasaten bizitzea, 18 urte baino gehiago izatea eta ikastarora joateko konpromezua. Izenematea: urtarrilaren 26a baino lehen, Udal Emakume Sailean edo 79 41 39 telefonora deituta.

PSIKOLOGIA ETA SUKALDARITZA IKASTAROA

Famili eta Gizarte Hezketarako zentruak antolatuta. Psikologia-ri buruzko eskolak asteazkenetan emango dira, arratsaldeko 4etatik 6etara. Sukaldaritzari buruzkoan, ohiko euskal janariak nola prestatzen diren irakatsiko da. Eskolak astearte eta ostegunetan emango dira, goizez edo arratsaldez. Izenematea zentruak Santa Teresan duen lokalean edo 79 04 59 telefonora deituta.

“EBaren proiektua gaur egungo internazionalizazio prozesuaren ondorioa da. Egia da, indar produktiboen sozializazioak (kapitalismoaren ezaugarrietariko bat) INPUT-en oinarri geroz eta sozialagoa dakar (edozein produkzio prozesutan Erta Ekialdetik datozen olio eta grasak erabiltzen dira, Taiwango osagarriak, Hegoamerikako lehengaiak eta Alemanian egindako makina-erreminta). OUTPUT-en norabidea ere geroz eta sozialagoa da (edozein europar produktugilek bere produktua eramateko hogeiren bat herrialde desberdin baditu). Internazionalizazioa ondo ikusten da interdependentziaren gehikuntzan, baita Estatua-Nazioa marko txikiak gaintzeko beharrene ere, erabaki politiko-ekonomikoak gune zabalagoetan har daitezten”.

Antxon Mendizabal - Eusebio Lasa, urtarrila.

HERRIA
Eginez

“1959 (...) Garai autarkikoa, merkatu zoriotsua eta idilikoa argitasun, berritasun eta kalitate apur batez mugitzen zirentzat, egokia emandako dena irensten zelako. Beti bezala, kontsumitzailearen baitan berrikuntza lehenetsunaren artean dago. Ikatza edo petrolotik gas-era aldatzea salto izugarria izan zen, eta gainera labe baten kapritxoa ezarriaz gero, hobeto. Eta Fagorrek eman zion eta horrela garaipena lortu.

Gaur. Eskenategia erabat aldatu da: merkatu autarkikoa, mugarik gabeko eta orokor bihurtu da. Saltoa hil ala bizikoa da, derrigorrez. Eta hala ere, aktualitate izugarria du bezeroaren izendapenak, sekula baino printzeago, exigenteago, gogorrago eta aldakorrago, erosotasuna eta berrikuntza gogoko dituela, kalitate merkean erabateko segurtasuna izanez”.

Jesus Larrañaga. Abendua.

TU lankide


Zein ondorio atera zenuten Arrasaten burututako Topaketan?

Joan den astebukaeran XIV. topaketak egin zituen Askagintzak Arrasaten, udalek drogamenpekoatasunaren kontra egin duten lanaren balantzea egiteko. Horrez gain, udaletara eramango dugun proposamenaren oinarriak finkatzea izan da helburua.

Udalek egindako lanari buruz esan, benetan kaskarra izan dela. Prebentzio komunitarioa eta partehartzailea egiteko politikarik ez dago. Programak egon badaude, baina ez dute herritarren ekimena eta inplikazioa bultzatzen. Drogamenpekoatasunaren inguruko programak beste enpresa batzuk antolatzen dituzte.

Herri batzuetan Gizarte zerbitzuek irentsi dituzte prebentzio zerbitzuak, eta asistentzialismo hutsean ari dira. Era berean, herri gehienetan ez dira esparru partehartzaileak sortu. Profesionaltasunaren izenean egiturak eta zerbitzuak burokratizatu egin dira, eta taldeen nahiz pertsonen partehartzea uxatu egin da. Udalak eta zerbitzuak ez dira herritarren eta taldeen eskaerak jasotzeko gai izan.

Askagintzak ez die miraririk eskatzen Udalei. Drogamenpekoatasunaren prebentzioa egitea baino ez diegu eskatzen, hori da eta euren eginbehar nagusia. Proposamen bat: drogamenpekoatasuna prebenitzeko Plan Komunitarioa egitea, ez Udalena edo erakundeena. Bigarrenik, esparru partehartzaileak (batzordeak...) sortzea eta edukinez betetzea; familiar, eskolari, aisialdiari, komunitateari zuzendutako programak egitea...



Deunoro Otero
Askagintzako partaidea

INGELESA IKASIKO DUT!!

Non? **CIMen**

Noiz? **Urtarrilaren 15etik aurrera.**

Nola? **Astean 3 orduko ikastaroetan, oinarrizko mailatik aurreratuenera.**

Eta **GABONETAKO** oparia: matrikula dohainik izena ematen duten lehenengo bostentzat.

CIM
HIZKUNTZAK-IDIOMAS

Araba Etorbidea, 4
Tfnoak. 79 01 32-79 65 54
20.500 ARRASATE



Gaztea lan istripuz hil

Santiago Boisa, 24 urteko gazte arrasatearra hil zen lan istripuz ostiral arratsaldean. Aretxabaletako Oro auzoan, Goikoetxea baserriaren teilatua konpontzen ari zela, teilatutik jausi eta hil egin zen gaztea. Aita, 54 urteko Ismael Boisa, teilatutik erortzera zihoala ikusi eta laguntzera joan zenean, biak jausi eta semea hil egin zen.

Eskualde Ospitalera eraman zuten aita larri zaurituta, baina astean onera egin du.

Lapurreta ugari

Ostiral gauean bi lapurreta gertatu ziren Arrasaten. Gaueko hamaika t'erdietan, Iturriotz kaleko Ipec dendan sartu ziren lapurrak eta sei aterkin, poltsa bat eta 10.000 pta. eraman zituzten. Hamabost minutu beranduago, Olarte kaleko Usoa dendan sartu ziren baina ez zuten gauza askorik eraman.

Astelehenean, berriz, Olarte kaleko Sagasta estankora sartu ziren eta 219.000 pta. lapurtu zituzten. Eguerdian, denda



Al-Andalusen batzar orokorra

Urteroko batzar orokorra egin zuen igandean Al-Andalus elkarteak. Oraindik obrak bukatu gabe egon arren, gutxi barru euren egoitza izango den lokalean bildu ziren bazkideak. Iazko urtearen balantzea egiterakoan, 95a ondo joan dela esan zuen Rafa Gomez, elkarteko lehendakariak. Aurtengorako, 37 miloiko aurrekontua finkatu dute. Batzar ostean luntxa izan zuten bildutako guztiek.

itxita zegoen bitartean, zerraila apurtu eta estankora sartu ziren lapurrak.

Iruzurgileak atxilotu

Onceko kupoi faltsuarekin, Arrasateko banketxe batean 100.000 pta. eraman zituen iruzurgilea atxilotu zuen Ertzantzak zapatuan. Iruzurgilea, 32 urteko Manuel M.M. arrasatearra,

Ertzaindegira joan zen dirua berak jaso zuela aitortzera, baina kupoia lagun batek eman ziola esanaz.

Astelehenean, Enrique P.P. kupoia faltsifikatu zuen laguna atxilotu zuen Ertzantzak Aretxabaletan. Azken hori ere arrasatearra da eta 28 urte ditu. Bergarako epaitegira deklaratzera eraman zuten atxilotua asteartean.

Kontzertu zoragarria

Joan den igandean JONDEren kontzertua entzutera joan zirenen berbetan, zoragarria izan zen Espainiako Gazte Orkestra Nazionalak eskaini zuen emanaldia. Amaia antzokia bete ez bazen ere, entzule asko erakarri zituen kontzertuak.

Gauean, Udalpe elkar-terera afaltzera joan ziren antolatzaileak eta orkestrako partaideak. Antolatzaileen esanetan, JONDEko partaideak pozik azaldu ziren eta baliteke datorren urtean ere Arrasatera etortzea. JONDEn 25 musikari euskaldun daude.

JAIOTZAK

- Anani Rodriguez Fernandez. Abenduaren 31n.
- Ander Peran Mancebo. Urtarrilaren 14ean.

HILDAKOAK

- Josefa Ugarte Balanzategi. Urtarrilaren 7an. 89 urte.
- Pedro Zubizarreta Urzelai. 10ean. 77 urte.
- Maria Herrero Mesonero. 10ean. 65 urte.



Elena

Bizkaia-Etorbidea, 1. etxeba ARRASATE Tfnoa: 77 14 24



Kalitate gorena leihotetan

LANTEGIA ETA ERAKUSKETA

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE



* Salvador Peña

Retegik asmo onak besterik ez

Xabier Retegi jaunak 1996-99 eperako aurkeztu duen plana, gure iritziz, lehengoaren jarraipena besterik ez da, bakarrik intentzio edo asmo onetan oinarrituta dago.

Plan horren arabera, 80.000 lanpostu sortzea aurrakusten da. Gezur hutsa da hori, ez da aipatzen zenbat lanpostu desagertaraziko diren.

Dirulaguntza publikoak, 120 mila milioi aipatzen dira, enpresa kapitalista bakar batzuk indartzeko erabiliko dira, ez enpresa txikiei laguntza emateko, SAL-ei, kooperatiba txikiei eta autonomoei esaterako, azken hauek enplegua sor dezaten zerbitzu arloan.

Era berean langileak berziklatzeko dirulaguntzak

behar dira, espezializatutako lanpostuak bete ahal izan dituzaten.

Enpresei artifizialki ez zaiela lagundu behar, hori ere esaten du Retegi sailburuak. Eta hauek Gobernu Zentrari dagokienean, galerak gutxitzeko uko egiten dio edozein rekonbertsio edo rees-

.....

“Hitz gutxitan esanda, aurrez aipatutako prebisio eta plan horiek guztiak, errealitatearekin zerikusirik ez duen teoria batzuetatik abiatuta egiten dira”

strukturaziori. Ez du ere lanaren banaketari buruzko inolako aipamenik egiten, lan-sailburuak defendatzen duen bezala.

Dirua irabaztea beste helbururik ez duen bankaren ekimenei buruzko inongo kritikarik ez du egiten, nahiz eta banka sekula ez saiatu arazoetan dauden enpresei laguntzarik ematen. Industrialdeak sortzeaz ez du ezer esan, diru gutxien daukateinei pabilioiak subentziona-tzeaz.

Hitz gutxitan esanda, aurrez aipatutako prebisio eta plan horiek guztiak, errealitatearekin zerikusirik ez duen teoria batzuetatik abiatuta egiten dira. Adibide batekin ikus daiteke hori ondoren: jubilazio adina luzatuz segurtasun sozialaren sistema orekatzen dela esaten da, urte gehiago kotizatu eta kobratzen beranduago hasten delako. Baina gazteak zein adinekin hasten lanean?

Ondorio gisa zera esango nuke, era honetako egitasmoek 30en bat proiektu handi egiteko beste ezertarako balio ez dutela, komunikabideetan irtetzeko. Horrela egiten zuen Azua jaunak, Super Lopez Arriortuaren proiektuak azaltzerakoan. Antzerako gauza asko egiten da, baina Retegik ez du ezer aipatzen itxi den enpresa kopuruari buruz, dirulaguntzak emanez gero martxan egongo lirakekeenak, bai banketxeen erruz eta baita administrazioaren erruz ere.

* UGTko PARTAIDEA

USTEAK USTE

ETORKIZUNA ZIURTATU

Urtarrilak 14, urteko lehen arrasatearraren jaiotza eguna. Martxa aldatzen ez bada, aurten 24 ume jaioko dira Arrasaten, hileko bi. Biztanlegoari buruzko datuak ez dira oraindik ezagutzen, eta aurreko urtean baino jende gutxiago dagoela esateko, ezta ezagutu beharrik ere.

Krisiari egotzi izan zaio hain ume gutxi jaiotzearen errua, ekarri ekartzearren ekarri daitezkeela, baina gero hazi egin behar direla eta hori garesti irtetzen ei da, familiaren ekonomia kili-kolo jartzearaino. Ez dakit ba nik! Gerra ostekoak izanik, gure gurasoek ez zuten guk adina dirurik mugitzen, gurasoen gurasoek krisia ezezik gose galantak ere ezagutu zituzten, aurrerakoek auskalo... eta hala ere, makina bat haur munduratzeko gauza izan ziren. Ez zekitela umerik ekarri barik txortan egiten? hori sinestea ere!

Ez da diru kontua. Alperrak gara. Ondo dakigu ume batek dakarren lana, eta soldatapeko lanez aparte ez dugu besterik egin nahi. Suizidio kolektiborantz goaz bi horretatik, etorkizuna deuseztera. Esaldi labur batean esateko, Alea Jacta Est latinez edo Gureak Egin Du euskaraz.

BEÑARDO KORTABARRIA

BAZAR
TOKI ON

**ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA**

J. Carlos Guerra, 1
Tfnoa: 79 91 64 ARRASATE

EGUZKIGRAF
inprimategia

Industrialdea 1-0-4
Tfnoa: 791844
Faxa: 792941

ARETXABALETA

ARTEA

Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK

Laminak, Izpiluak,
Margoak


Ferrerias, 11 Tfnoa: 77 10 95
ARRASATE

Aurtengo aurrekontuen zirriborroa eztabaidatzen hasi dira alderdiak

Iazko urrian hasiera eman zitzaion 96ko udal aurrekontuen idazketari. Orduetik, batzordeek euren proposamenak zehazteko bilerak egin dituzte, eta dagoeneko batzorde bakoitzak egin du diru eskaera. Ino Galparsoro, hazien da batzordeburuaren esanetan, "batzordeen proposamenak diru sarrerak baino handiagoak direnez, eskari batzuk egokitu eta beste batzuk kendu egin beharko dira".

Batzordeen proposamenak, eta Udalaren sarrerak eta zorpe indizea jasotzen dituen dokumentua gertu dagoenez, astean alderdi politikoak hasi dira eztabaidatzen 96rako aurrekontuen zirriborroa. Eztabaida prozesuan alderdi politiko bakoitzak bere proposamena egiteko aukera izango du, eta horren arabera ikusiko da zein puntutan lortzen den adostasuna. Akordiorik lortzen ez den kasuetan, emendakin bezala proposamena plénora eramateko aukera izango dute alderdiek. Bi aste barru diruaren nondik norakoak zehaztuta edukitzen espero da, otsailaren erdian 96ko aurrekontuak onartzeko plénoa egin nahi da eta.

Gobernu taldeak gehien gorik ez duela eta, aurtengo aurrekontuen inguruan akordioa lortzea zailagoa izango dela pentsa daiteke. Ino Gal-



Diputaziotik 1.106 milioi pta. jaso ditu Udalak.

parsororen ustez, "teorian zailagoa izan beharko litzateke baina praktikan ez dakit nola joango den. Orain arteko prozesuan, PP kenduta gainontzeko alderdiek parte hartu dute, eta eztabaida normala izan dela esan daiteke. Hala ere, goizegi da eztabaida erraza izan dela esateko".

Diputaziotik laguntza gehiago

Gipuzkoako Diputaziotik 1.106 milioi pta. jaso-

ko ditu aurtén Arrasateko Udalak, iaz baino 100 milioi gehiago. Hazienda batzordeburuak azaldutakoaren arabera, "Diputaziotik jasoko dugun dirulaguntzaren igoera erlatiboa da. Alde batetik gehitu egin bada ere, besteik ohiko programetarako zuzentzen diren dirulaguntzak gutxitu egingo dira." Gizarte zerbitzuetarako edo kontsumitzaileen bulegorako laguntzak, adibidez, murriztu egingo dira.

EKlren idatziari erantzun

EKI-k idatzi bat bidali du Udalera, ingurugiroarekin lotuta dauden gaien berri ez dutela Udaletik jasotzen salatzeko. Ekologi taldearen ustez, gainera, mozioren bat aurkezten dutenean Udaletik ez zaie jakinarazten zein plénotan aztertuko den mozioa.

Gobernu taldeak ez du begi onez ikusi Eki-k bidalitako oharra, idatziaren tonoa nahiko gogorra dela uste du eta. Gobernu taldearen ustez, Udalak ez du ingurugiroarekin lotuta dagoen informazio gordetzen, baina EKIr ezin dio egiten duen guztiaren berri eman. Informazioaren bat nahi duenean, ekologi taldeak eskaria egin behar duela erantzun du Udalak.

Urkulura joaten direnei oharra

Azkenaldian Urkulun lapurreta asko izan dela eta, urtegiaren arretaz ibiltzeko eskatu du Ertzantzak.

Urkulura joaten den jendeak, batez ere kirola egitera doazenak, autoan hainbat gauza uzteko ohitura du. Ertzantzaren ustez, lapurrak zain egoten dira eta autoan gauzak uzten direla ikusten dutenean lapurretak gertatzen dira. Horregatik, gauzak agerian ez uztea eta kontuz ibiltzea eskatu dute. Kirola egitera joaten direnek, adibidez, erropak etxean aldatzea eta karterak etxean uztea komenigarria dela gogoratu dute.

CE **ERRASTI KRISTALDEGIA**

**Plastiko eta burdinezko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak**

Olarte kalea, 47 behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

**PUB
HAIZEA**



Sabotaiak ia bederatzita milioiko kalteak utzi ditu Ferrerriaseko etxebizitzetan

Azaroaren 3an Argentaria bulegoaren aurka burutu zen sabotai ekintzak, ia bederatzita milioiko galerak eragin ditu Ferrerrias 8 eta 8 bis etxebizitzetan. Diru-kopuru horretan saneamenduak, elektrizitateak eta aurrealdeak izandako kalteak sartzen dira, ez etxe bakoitzean izandakoak.

Sabotai ekintzek eragindako kalteez aseguruaren partzuergo nazionala arduratzen dela eta, Ferrerrias zortziko bizilagunak Partzuergoarekin harremanetan daude. Partzuergoak hala ere, bizilagun bakoitzak duen aseguruaren arabera lagunduko du diruz. Seguru onik ez dutenek, adibidez, 40.000 pta. jasoko dute Partzuergotik.




Datorren astean etxebizitzetako konponketa lanak hasiko dira.

Bizilagun bakoitzak 300.000 pta-ri egin beharko dionez aurre, terrorismoaren biktimei Eusko Jaurlaritzak ematen duen laguntza ere eskatu dute. Jaurlaritzak kal-

teen erdia ordainduko die, beraz, norberaren poltsikotik ere ordaindu beharko dute bizilagunek.

Datorren astean etxeen aurrealdea eta saneamendua


konpontzen hasi nahi dute kaltetuek. Horregatik, obra lizentzia eskatu dute Udalean eta gainera, obra tasa ordaintzetik salbuestea eskatu diote Udalari. Bizilagunen ustez, ez dituzte obrak borondatez egingo, halabeharrez baino, horregatik eskatu dute tasa ordaindu beharrik ez izatea. Udalak, oraingoz, obra lizentzia eman die baina tasei dagokienez, aseguruak tasa horiek ordaintzera behartua dagoen aztertu nahi dute lehenik. Hori jakitean erabakiko du bizilagunen eskaria onartu ala ez. Kaltetu batek adierazitakoaren arabera, beste herri batzuetan horrelako kasuak gertatu izan direnean Udalak ez du tasa kobratu.




weru®
Ate + leihoak



Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 97 95 ARRASATE



Ezagutu itzazu PVCren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgarriak, ez hotzik, ez berorik, ez soinurik...



La bi urteko obren ostean, laster bukatutzat emango ditu obrak Arrasateko Udalak.

Hile amaierarako bukatuko da Uharkapeko horma

Urtarrilaren amaieran bukatutzat emango ditu Udalak Uharkapeko hormaren erakuntza lanak. Horma dagoeneko eginda dago. Egunotan, horma bultza ez dezan hormaren atzealdean egon daitekeen ura kentzen ari dira.

Hirigintza sailekoen esanetan, obrak ondo joan dira eta espero zen bezala, azken neurketen arabera horma ez da mugitzen. Hala ere, noizean behin neurketak egingo dituzte mugitzen den edo ez frogatzeko.

Uharkape inguruko lanek hala ere aurrera egingo dute. Irgala eraikuntza enpresa,

140 etxebizitza egiten ari da eta urbanizazioa ere egin beharko da. Horrez gain, Jose Luis Iñarrara joateko bidea ere zabaldu eta konpondu beharko da. S.F.X. ikastolaren alboan, berriz, Ferixalekuko frontoia egiteko tokia utzi da.

Azken asmo horiek bukatuta ikusteko denbora pasatu beharko bada ere, epe motzera frantziskotarren aurrean, Otalora kalean, errotonda bat egiteko asmoa du Udalak. Trafikoa arintzea izango da errotondaren helburua, eta dagoeneko proiektua egiten ari dira hirigintza sailean.

Hauteskunde errolda ikusgai

Martxoaren 3an hauteskundeak egingo direla eta, erroldare zerrenda berriak ikusgai daude Udaletxeko arkupeetan. Zerrendak urtarriaren 22ra arte izango dira ikusgai, goizeko 9etatik gaueko 9ak arte. Erreklamazioak idazkaritzako bulegoetan egin beharko dira, astelehenetik ostiralera bitartean. Goizean 10.30etatik eguerdiko 12.30etara eta arratsaldez 6ak arte.

EBZaren eraketa atzeratu

Datorren ostiralean egingo da Enpresa Berritzaileen Zentroa eratzeko plenoa. Aste honetan egitea aurrikusita bazegoen ere, azken momentuan Diputazioak ere Arrasateko EBZaren bazkide izatea erabaki du, eta eraketa eguna atzeratu behar izan da. Datorren asteartean Diputazioako arduradunak Arrasatera etorriko dira, Foru Aldundiak zentruari zein ekarpen egingo dion zehaztera.

Lau izango dira beraz EBZaren bazkideak: Udala, SPRI, Eskola Politeknikoa eta Diputazioa.

BILDUMA BERRIA
bonardi '96
MULTIOPTICAS-EN ESKLUSIBA

**Asko Gustatzeko.
Gutxi Gustatzeko.**



2.850
P T A

Hemen dago jadanik MultiOpticas-eko Bonardi bilduma eskusiboa, adin, gustu eta poltsiko guztietara egokitzen diren modelo guztiekin. MultiOpticas-en garantiarekin 450 salmenta tokitan. Prezio paregabe batean. Gastatu gabe gustatzeko.

MULTIOPTICAS J. LARRAÑAGA

BERGARA

ARRASATE

ORDIZIA

1.ak

BERBITZ
OPTIKOETAN

MULTIOPTICAS EIBAR

Bidebarrieta 2 - EIBAR - ☎. 100522



Urtarrilaren 11an etorri ziren sei lagun hauek Arrasate Press eta Arrasate Telebista ikusten. **Oñatiko barnetegitik etorri ziren** nahiz eta ikasleak gasteiztarrak izan; eskumako neska berriz, barnetegiko irakasle eihartarra da. Gustora geratu ziren iku-

sitakoarekin eta interes handia erakutsi zuten komunikabideen funtzionamenduz. Hori bai; hauek ere ezin izan zuten gure argazki kamara-aren objetibotik aldegin eta beti bezala, euren bisitaren oroimena argazki honetan jaso genuen.



Mutikotxo polit hau da 96an Arrasaten jaio den lehen arrasatearra. Ander Perán Mancebo dauka izena eta urtarrilaren 14an jaio zen. 3 kilo eta 415 gr.ko kiloko pisua

izan zuen jaiotzean eta bere amak, Blanca Mancebok harro esaten duenez, oso ondo portatzen da. Berandu, baina azkenean jaio da urteko lehen mondragoetarra!



*Armonika eskuarte hartu eta putz eginda, sekulako doinu politak jo zituen Nako Goñi blues musikariak joan den ostiralean Aterpe tabernan. **Nakok "Blues Company" bere azken***

diskaren kantak jo zituen. Aterpe taberna handia izan arren, ostiralean txiki geratu zela esan behar da; bete beteta egon zen eta blues erritmoan dantzatu zuenik ere izan zen.



Mondra futbol taldeak ateratako egutegietako zerbakiaren zozketa egin zen domekan Atxabalpen: 100.000 ptako saria 0600 zerbakiari egokitu zitzaion; 50.000koa 8.138 zerbakiari eta 25.000koa 7.973 zerbakiari.



IZEN PROPIOAK

● Honako hauek izango dira Al-Andaluseko Zuzendaritza Batzordeko kide berriak: **Fabio Garcia, Antonio Orellana, Emilio Ubeda** eta **Angel Del Fresno**.

● **Blanca Roncal**, PSE-EEko zinegotzi arrasatearra, Gipuzkoako PSE-EEK kongresurako aurkeztuko duen zerrendan seigarrena izango da.

Joan den ostiralean Santamas Argazki Lehiaketako sari banaketa egin zen Monterronen. Partehartzaile guztiak joan ziren sari-banaketara baina jakina, guztiek ezin saririk jaso. Argazkikoak izan ziren irabazleak. Erdikoak, Jon Ozaetak, lehen saria, argazki bilduma onenarena jaso zuen

eta 30.000 pta. etxeratu. Diru horrek argazki kamara berri bat erosten lagunduko diola esan zuen. 2. saria, argazki onenarena, Juan Luis Azkarate kazetari eta argazkilariak irabazi zuen eta 3.a, bigarren argazki bilduma onenarena, Karmelo Uribarenek. Zorionak guztiei!

Kazetari harrobi paregabea daukagu Santamainan! Horieta batak argazkian dauden Sandra, Roberto, Sonia eta Asier dira eta eskuartean daukaten aldizkaria Txatxilipurdik bertan daukan ludotekan argitaratutako lehena da. "**Gora-berri-behera**" jarri diote izena eta elkarrizketa, inkesta, denborapasa etabarrez osatu dute. Gaztetxoek lan handia egin behar izan dute baina azken emaitzak pena merezi izan du.



H A U R T X O A

Arrasate Pasealekua 4,
Tfnoa: 79 14 90
ARRASATE

Epelde

- Estudioa
- Ezkontzako erreportaiak
- Bideoa
- Argazkiak

Iturriotz, 24 Maixu Arano, 8
Tfnoa: 79 19 71 Tfnoa: 79 26 23

HIES EKIMENA
Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.
Tfnoa: 79 26 99

IRRATI TAILERRA

ARRASATE IRRATIAN



**IRRATSAIOAK EGITEKO IKASTARO PRAKTIKOA
(AUKERAN, IRRATI KONTROLA)**

- *Edukia:* Oinarrizko teoria eta irrati praktikak
- *Iraupena:* Otsailak 28 - maiatzak 22 (asteazkenetan)
- *Ordutegia:* 7etatik 9etara
- *Matrikula:* 3.000 pta. (1.500 pta. ikasle eta langabetuentzat)
- **Plaza mugatuak**
- *Izen emateak:* Gazte Bulegoan. Tfnoa: 77 00 65




ARRASATEKO UDALA

Gazteria ■
Saila ■
■

Sobre edo paketeren bat bidaltzeko baduzu, bihar goizerako entregatuko dizugu **estatuko edozein tokitan.**

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan 850 pta.
Estatuan 1.200 pta.*

* 2 kilorentzako tarifak



79 92 77

Bizkaia Etorbidea, 16 behea
20.500 ARRASATE
79 92 77

Zaldibarko Futbito Txapelketa


- *Hamaikagarren ihardunaldia.*
- *Protagonistak: Oskar Loiti eta Josu Agirre.*
- *Taldeen aurkezpena: Alealeee, Sortu Informatika, Petroleros eta Construcciones Fercon.*

Kirolean kirolaren inguruaren buruzko zerbait nagusitzen denean, ez da normalean onerako izaten: trapu zikinen aideratzea, lesioak... edo zorigaitza. Azken hori da, zoritxarrez, aste hohetako Zaldibarko txapelketako protagonistetariko bat. Izan ere, Santi Boisa, Cervéceria Leintz taldeko jokalaria hil egin zen istripu baten ondorioz lanean ari zela. Normala denez, bere taldeak ez zuen partidurik jokatu eta beste bat ere, arazoi beragatik, bertan behera geratu zen.

Tira, bizitza aurrera doa eta Zaldibarren gauza gehiago gertatu da: Gipuzkoako Federakuntzako idazkariaren bisita, inpresio ona eramanez; Gol kopuru handia, Argi Ibilik 15 eta Borrock & Rollek 10 esaterako; ia astero talderen batek jasotzen duen zigorra... ea hemen-dik aurrera berri denak azken hauen bezalakoak diren.



Erdiko kale. 79 19 37



Ferreries. 79 87 62



IBARRA
Garajea S.L.



EBRO
NISSAN

Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua

Sailkapenak

A taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Franciskanerr	11	9	1	1	52	26	19
Orlando Piratas	11	9	0	2	72	31	18
Sokoakoak	11	8	2	1	80	38	18
Arrasate Kirolak	11	7	2	2	37	31	16
Argi Ibilii	11	7	1	3	71	32	15
Kamasutra	11	6	3	2	51	24	15
Sortu Informatika	11	5	3	3	57	51	13
Jotakabau	11	5	3	3	47	39	13
Totem	11	5	2	4	46	39	12
D.A. Iriztu	11	5	1	5	53	42	11
Kakajauri	11	4	1	6	35	37	9
Bukanak	11	3	2	6	49	44	8
Uglys Txinato	11	2	4	5	33	50	8
Gaztetxokoa	11	3	0	8	28	76	6
Gualtrapas	11	3	0	8	35	72	6
Alealeee	11	2	1	8	27	79	5
Toss Tehaman	11	2	1	8	20	68	5
Tronkoteak	11	0	1	10	2	16	1

B taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Fosforos	11	9	1	1	60	32	19
Txeyenex	11	9	1	1	50	20	19
Bar Okorotegi	11	7	2	2	38	17	16
AdelaidaHaizea	11	7	1	3	54	24	15
DKB	10	7	0	3	40	31	14
Hirei	11	7	0	4	43	26	14
AC Surkos	10	6	1	3	39	29	13
Lorategi	11	6	1	4	31	28	13
Ojo Avisore	11	5	3	3	45	35	13
Los Heredia	11	5	2	4	29	27	12
Altza Porru	11	4	1	6	30	38	9
6. Proyecto	11	3	2	6	24	36	8
Fraguel Gol	11	3	1	7	29	38	7
Berango Suka.	11	3	0	8	29	31	6
Kopyprest	11	2	0	9	25	69	4
Kirten Tropel	11	2	0	9	16	45	4
Los Dalton	11	1	0	10	27	71	2
Aizpun Bila	11	3	2	6	16	28	0

D taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
A ti que te importa	11	9	1	1	47	30	19
Lautherbrunnen	11	8	1	2	75	40	17
Anbotoste K.T.	11	8	0	3	40	23	16
Irati STS	11	8	0	3	47	28	16
Ganbelas	11	7	2	2	43	28	16
Bar Nuevo	11	6	3	2	61	29	15
Betrayer	11	7	1	3	53	38	15
Insert Coin	11	7	0	4	53	41	14
Trikiti	11	6	2	3	44	23	14
Los Dimy	11	6	2	3	28	29	14
Borrock & Roll	11	5	0	6	48	41	10
Potosorri	11	2	2	7	24	35	6
No Comment	11	3	0	8	27	44	6
Arrasate Zoo	11	2	1	8	19	36	5
Elisabeth	11	1	3	7	22	43	5
HMKL	11	2	0	9	27	69	4
Txerokis	11	1	1	9	38	65	3
Construc. Fercon	11	1	1	9	30	84	3

E taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Pub People	11	10	0	1	79	27	20
Aurrera Bolie	11	8	2	1	48	25	18
Cerveceria Leniz S.A.	10	7	1	2	36	20	15
Zotz Motz	11	7	1	3	41	31	15
Artzankos Udalaiz	11	6	2	3	36	27	14
Perrahotsa	11	7	0	4	36	31	14
MSM Ingenierial	11	6	1	4	39	21	13
Koka Juniors F.C.	10	6	0	4	43	34	12
Danok Lagun	11	5	2	4	39	35	12
Pepelus	11	5	1	5	45	35	11
Leya	11	3	3	5	28	34	9
Petroleros	11	3	3	5	25	35	9
Excavaciones Lete	11	4	0	7	37	44	8
Cartonajes Igamo	11	3	1	7	41	52	7
Ke Oxtias!!!	11	3	0	8	39	45	6
Resakas	11	2	1	8	15	46	5
Kriskibalda	11	2	0	9	25	57	4
Baneuko	11	2	0	9	31	84	4

Emaitzak

A Taldea

Kakajauri 3 -Totem 5
Arrasate Kirolak 1- Kamasutra 0
Bukanak 10- Alealeee 1
Orlando Piratas 1 -Franciskanerr 2
Argi Ibilii 15 -Gualtrapas 3
Sokoakoak 10 -Uglys Txinato 2
Tronkoteak 0-Tos Tehaman 1
Sortu Informatika 3-D.A. Iriztu 3
Jotakabau 9-Gaztetxokoa 2

B Taldea

Los heredia 3 -Adelaida haizea 3
Los Heredia 4-Kopyprest 0
AC Surcos-DKB (Suspeditua)
Berango Sukaldeak 5-6. Proyecto 0
Txeyenex 3-Lorategi 3
Ojo Avisore 10-Kirten Tropel 3
Bar Okorotegi 8-Los Dalton 2
Fosforos 8-Fraguel gol 5
Hirei 1-Adelaida Haizea 3
Altza Porru 0-Aizpun Bila 3

D Taldea

Constru. Fercon 0-Borrock & Roll 13
No Comment 3-Lautherbrunnen 7
Insert Coin 4-Arrasate Zoo 1
Betrayer 3-A ti que te importa 6
Anbotoste KT 4-Irati STS 3
Txarokis 2-Trikiti 10
Elisabeth 1-Bar Nuevo 7
Potosorri 2-Ganbelas 4
HMKL 1-Los Dimy 3

E Taldea

Excav. Lete 3-Artzankos Udalaiz 6
Pub People 5-Kriskibalda 3
Zotz Motz 3-Perrahotsa 4
Pepelus 7-Ke oxtias!!! 1
Resakas 0-Leya 0
Cerveceria Leintz -Koka Juniors (Susp)
Cart. Igamo 2-MSM Ingenieria Int. 3
Aurrera Bolie 5-Danok Lagun 4
Baneuko 5-Petroleros 3

Hurrengo partiduak

12. ihardunaldia

Larunbata 20 Zaidibar

8.50 Kopyprest - Los Dalton
10.00 Potosorri - Arrasate Zoo
11 Excavaciones Lete - Leya
12 AC Surcos - Lorategi
13 Aurrera Bolie - Perrahotsa
14 Anbotoste KT - Elisabeth
15 Hirei - 6. Proyecto
16 Totem - Uglys Txinato
17 Ganbelas - HMKL
18 Petroleros - Kriskibalda
19 Txeyenex - Bar Okoretegi

Iturripe A

11 Los Dimy - Lautherbrunnen
12 Danok Lagun - Baneuko

13 Adelaida Haizea - Altza Porru
14 Gaztetxokoa - Kamasutra
15 Artzankos Udalaiz - Koka Juniors
16 Construcciones Fercon - Irati STS
17 Ojo Avisore - Fosforos
18 Borrock & Roll - Trikiti
19 D.A. Iriztu - Jotakabau

Iturripe B

13 Los Heredia - Kirten Tropel
14 Zotz Motz - MSM Ingenieria Integral
15 No Comment - A ti que te importa
16 Kakajauri - Gualtrapas
17 Insert Coin - Bar Nuevo
18 Bukanak - Toss Tehaman
19 Berango Sukaldeak - Fraguél Gol

Igandea 21 Zaldibar

8.50 Pub People - Ke Oxtias!!
10 Arrasate Kirolak - Franciskanerr
11 Pepelus - Cerveceria Leniz S.A.
12 Orlando Piratas - Sokoakoak
13 AC Surcos - DKB

Iturripe A

11 Resakas - Cartonajes Igamo
12 Sortu Informatika - Alealee
13 Betrayer - Txarokis

Protagonista

Oskar Loiti Alealeee taldea

- Partidua nahiko txarto ez?

- Gabonen osteko lehen partidua izan da eta asko igarri da forma bazu samarrean gaudela.

- Buelta gogorra izan da?

- Bai dexente. Normalean ez dugu entrenatzen, partiduak daudenean besterik ez gara biltzen eta Gabonetan jokatu ez dugunez...

- Gainontzean, zer moduz txapelketa?

- Oso ondo ez, hamaboskarren postuaren inguruan gaude, bi partidu irabazi, bat



berdindu eta gainontzekoak galdu ditugu, irabazitakoak gainera justu samar. Dena dela galtzeak edo irabazteak ez dauka garrantzia handirik, gure helburua ondo pasatzea da eta.

- Eta hurrengo fasera ez pasatzeak ez du penarik

ematen?

- Bueno... guk badakigu noraino iritsi gaitezkeen. Ikusten da hemen maila altua dagoela eta ondo pasatzearekin konformatu behar.

Gipuzkoa mailako txapelketarik gustatuko litzazuke?

- Gipuzkoa mailan? Ondo egongo litzateke, baina behar bada beste herri batzuetara joateko eta arazoak egongo lirateke. Hori bai, ondo antolatu beharko litzateke.

- Eta Zaldibarko selekzioa?

- Selektzioaren bat irten da ala? ez nekien ezer. Beno ondo iruditzen zait, kategoriako jokalariek ere badira eta, Mondran ibilitakoak eta badaude.

Protagonista

Josu Agirre Petroleros taldea

- Nola joan da gaurko partidua?

- Txarto, galdu egin dugu eta. Normala, oporretan ez dugu ezer egin. Buelta nahiko gogorra izan da, gehienok erdi-erreta gaude.


- Normalean ez duzue entrenatzen?

- Ez, batzuk lanean gabil-tza, beste batzuk ikasten eta astean ez dugu elkarrekin egoteko aukerarik izaten, bakarrik asteburuetan.

- Txapelketan ondo?

- Aurten oso txarto. Beste urte batzutan ondo ibili izan gara. Bigarren fasera sailkatzea lortu dugu orain arte, baina aurten ez da horrelakorik gertatuko.

- Urte asko Zaldibarren jokatzeko?



- Ba hau seigarren urtea bada bost urte eta bostgarrena bada lau.

- Eta betiko jendea ari zarete?

- Bai, betikoak. Lehen denok hemen geunden ikasten eta orduan jokatzeko biltzen ginen astean zehar, baina orain ez daukagu denborarik.

- Aurten zein talde ikus-

ten duzu txapelketan ondo?

- Betikoak kenduta, niri asko gustatzen zait AC Surcos taldea, gazteak dira eta oso ondo jokatzeko dute.

- Sorpresarik egongo da?

- Edo Fosforos, edo Argi Ibili, AC Surcos... horietakoren bat izango da irabazle.

- Herrien arteko txapelketa edo Gipuzkoakoa nola ikusiko zenuke?

- Hemendik ateratzea gehiegizkoa izango litzateke, jendea partidu denak oso ondo prestatzen hasiko litzateke... eta herriko kuadrilek akaso ez lukete izenik eman-gio.

- Eta Zaldibarko selekzioaz zer iritzi?

- Ez dut entzun dagoenik ere. Ondo egongo da, ez?



**DOLUA
ZALDIBARREN**
Santi Boisa Cervera Leintzeko jokalaria hil zen pasaden asteburuan lan-istripu baten ondorioz Aretxabaletan. Berria jakin ondoren bertan behera gertatu ziren bi partidu, jokalariek ez zeuden eta jokatzeko moduan. Atzeratutako partiduak lehenbait lehen jokatzeko asmoa dago. Goian bego.

Labur

■ Talde berri bat kanporatuta

Aizpun Bila taldekoak ez ziren aurkeztu asteburu honetan jokatu behar zuten partidura. Zaldibarko araudiak argi adierazten duenez, horrelako kasuetan taldea kanporatzen da eta arerioari partidua 1-0 irabazitzat ematen zaio, beraz Aizpun Bila kanporatuta.

Zigor gehiago ere egon da eta sailkapean bi puntu kendu zaizkio Berango Sukaldeak taldeari, zegokie-nan ez arbitratzeagatik.



Alealee



Sortu Informatika



Petroleros



Construcciones Fercon



LORAMENDIN

%30

- Forro polarrak
- Txamarrak
- Txandalak
- Sudaderak
eta abar

BEHERAPENAK!

ZAPATILAK

%20-50

San Andresen eta Garibaien

Diskotekaz diskoteka Makinaren erritmoan

Maidar Egües

Asko hitzegin da azkenaldi honetan aste-bururo diskotekaz diskoteka "Makailauaren Arruta" delakoa egiten duten gazteei buruz. Soinu elektrikodun musika berri horren inguruan gazte mugimendu berri bat sortu dela esaten dute batzuk. Diseinuko drogak neurririk gabe kontsumitzen ei dituzte eta makina musikaren esklabu direla uste du askok. Gazte hauek berriz, gizarteak estandarizatu egin dituela salatzen dute. Asteburua drogarik kontsumitu barik igarotzen ez dakitela aurpegiratzen dietenean, tabernetan ere badaudela eta gazte guztiek ez dutela drogarik hartzen erantzuten dute.

Gizarteak saku berean sartu ditu. Azkenaldian aldizkariak orri pila bat erre dute diskoteken ibilbidean mugitzen diren gazteei buruz hitzeginez, entzuten duten musika kritikatu eta hartzen dituzten droga berrien ondorio izugarriak azalduz. Sozio-

logo edo adituek, gazte tribu berri bat sortu dela diote eta ez dute itxaropenik diskotekaz diskoteka "Makailauaren Arruta" egiten ibiltzen diren gazteen etorkizunean.

Hori dela eta, makina, tekno, house edo trance izenez ezagutzen diren musika estiloak gustoko ez edo sekula en-

tzun ez dutenek, irudi txarra dute "Makailauaren Arruta" egiten duten gazteen inguruan. Fenomeno sozialtzat jo da diskotekaz diskoteka astebururo ibiltzea eta hori egiten duen gazte kopurua gero eta handiagoa denez, orokortasunean hitzegin da.

Horren aurrean kexu dira

diskoteketako arduradunak eta makineroak. Gazte talde prototipo artifizial eta konkretu baten kokatu dituztela nabaritzen dute; euren asteburuetako bizimodua sakonki eza-gutu nahi ez izateagatik, gazte etiketa merke berri bat sortu dutela pentsatzen dute. Nola-bait esateko, estandarizatuta sentitzen dute euren burua.

Jasan duten estandarizazio horren aurrean zera esaten dute: leku guztietara bezala, diskoteketara ere jende desberdina joaten dela eta bakoitzak bere gorputzarekin nahi duena egiten duela. Dena den, "Makailauaren arruta" fenomeno sozial berri bat izan daitekeela onartzen dute. Baieztape hori Arrasateko gazteek egiten dute, fenomeno sozial edo moda hori, Arrasatera heldu delako eta lagun askok asteburuetan herriko tabernetan ibiltzeari utzi eta diskotekaz diskoteka ibiltzeari ekin diolako.

MAKINA MUSIKAREN ERAKARPENA

1988-89an Erresuma Batuan sortutako "Acid House" mugimenduak harreman estua dauka gaur egungo makina musikarekin. Britaniar mugimendua musika mota berri batean oinarritu zen, sintetizadore artean sortu eta usain elektronikoa zuen musikan hain zuzen. Doinu horiek garpene handia izan zuten urte gutxitan eta gaur egun Euro-



Arrasatetik Elgoibarrera, Itziarrera, Gasteizera... aukera asko dago.

pako diskoteka guztiak bustitzen dituzte. Orain entzuten den makina musika, hasierako "Acid house" horren ondorio bat da.

Musika berri horretaz ulertzen dutenek harrapatu egiten duela diote eta ez zaie batera gustatzen jendeak makailau izenarekin etiketatzea. Zera dio musika elektronikoko berri hau entzuten duen gazte batek: "Makailaua pijoen tabernetan entzuten den musika da. Nik eta nire lagunek diskoteketan edo kotxean entzuten dugunak ez dauka zerikusirik makailauarekin eta jende askok ez du uste musika denik. Ni ziur nago maila altuko musika dena baina entzun egin behar da, ondo entzun". Beste batek zera gehitzen du: "Gazteen-gana indarrez heldu da musika hau. Dantzarako erritmoak ditu eta giro polita sortzen da diskoteketan. Gainera, musika horrek horrenbesteko marxa sortzen dit gorpuztean lotsa kentzen didala. Ezer ez dago debekatuta musika hori airean dagoenean; saltoka ibili behar bada, saltoka hasten naiz; butaketara igo behar bada igo egiten naiz... asko gustatzen zaidan desmadrea da musika hau".

Beste batek musika horrek arazoak ahaztu arazi egiten dizkiola dio: "Musika horrekin dauzkadan arazoak ahazten ditut. Horrek ez du esan nahi errealitatekin alde egiteko modu bat denik, denok daukagu, modu batera edo bestera, arazoak ahaztu eta ondo pasatzeko askatasuna eta". Bada ordea makina musika asteburuekin bakarrik erlazionatzen duenik: "Niri makina gustatzen zait, baina asteburuetarako bakarrik. Asteazken zehar musika lasaigoa entzuten dut".

Estatuan Valentzia izan zen lehen "Makailauren Arruta" sortu zen tokia eta horregatik, Valentziako disk-jockeyak hemengo diskoteketara etortzen dira: "Valentzia sekulako marxta dago. Han estatuko musi-



Jesus Parra, Arrasateko Ostarku diskotekako Disc-Jockeya.

karik, disk-jockeyrik eta diskotekarik onenak daude. Dena den, hango jendea oso jota dago, gehiegi. Iaz lau egun jarraian lo egingabe pasa nituen Valentzian, ostegun gauean hasi eta astelehen goizera arte. Astelehenean autobusa hartu eta Arrasatera bueltatu nintzen. Oso gaizki amaitu nuen, gorputzak ez zidan erantzuten baina urtean behin merezi du eta Valentzian bada hobeto" esaten du beste diskotekazale batek.

EUSKAL HERRIKO "MAKAILAUAREN ARRUTAK"

Arrasateko jendea Itziaroko Txitxarro eta Txitxi, Azkoi-

tiko Jazz Berri, Elgoibarko Guass, Saturrarango Venecia eta Gasteiz eta Donostiako diskoteketara joaten da asteburuetan. Dena dela, horrek ez du ostiraletik igandera arte diskotekaz diskoteka jarraian ibiltzen denik esan nahi. Aukerak ugariak dira eta ia beti, norberaren poltsikoaren arabera koak. Gainera, ez dago gauez joan beharrik: diskoteka batzuk egun osoz egoten dira zabalik edota goizetan zabaltzen dituzte atea. Beraz, lo egin ondoren goizean goiz fresko esnatu, kotxea hartu eta diskotekara joaten da gazte asko egun-pasa.

Beste aukera bat gau bakar batean 2 edo 3 diskoteketara

"Makailaua pijoen tabernetan entzuten dena da. Guk, trance, house... entzuten dugu"



Diskoteketan makina musika baino ez da entzuten.

joatea da, edo bestela gau oso bat diskoteka bakar batean igarotzea. Makailauren Arruta" ostiral gauean hasi eta astelehen goizean amaitzen duenik ere badago baina dirudenez, hau oso gutxitan egiten da diru asko behar izaten delako. "Bakoitzak nahi duena egiten du. Hemen egunero diskoteka desberdin batera joateko behar adina diskoteka dago eta gainera goiz, arratsalde edo gauean joateko aukera" esaten du batek. "Gainera, nahiz eta bi egun jarraian egin, ez dago denbora osoan diskoteka barruan egon beharrik. Aparkalekura irten, zeozer jan, jendearekin hitzegin, berriz sartu... ez dago aspertzetik".

Argi dago, gazte asko herrian tabernaz taberna ibiltzeaz aspertu egin dela: "Asteburutan ez daukat ezer hobetik egiteko. Tabernaz taberna ibiltzeak izugarri aspertzen nau eta herrian irtetzekotan, goizeko ordu batetarako etxean egoten naiz neke neke eginda".

ASTEBURU GARESTIAK

Oraindik ikasten dagoen edo lanik ez duen jendeak, gurasoek ematen dion diruarekin pasatu behar izaten du asteburua, eta diskotekaz diskoteka ibiltzea ez da merkea. Gau bat 3.000 pta.rekin justu justu pasatu ahal izaten ei da, 5.000 pta.rekin berriz, erraz. "Asteburu baten 20.000 edo 25.000 pta. erraz gastatzen dira baina 15.000 edo 10.000rekin ere pasa daiteke. Zaila da baina ez ezinezkoa" esaten du lan egiten duen gazte batek. Ikasle batek berriz, zera dio: "Ni gurasoek ematen didatenarekin moldatzen naiz. Kanpoan ikasten ari naiz eta hilabete osorako dirua ematen didate. Diru horrekin hilabete osorako moldatu behar izaten dut, asteburuak barne, beraz, ezin izaten dut asteburu osoa diskoteketan pasatu. Ni bakarrik gau baterako joaten naiz eta

ahal badut, Txitxarora: onena da”.

Batzutan lapurreta txiki batzuk egin behar izaten dituztenak ere badira: “Gurasoek 3.000 edo 4.000 pta. ematen didate astebururo baina horrekin ez dut nahikoa izaten eta dirua beste leku batzuetatik ateratzen dut: erosketak egin eta bueltekin geratuz, adibidez” dio diskoteketara joateari 14 urterekin ekin zion gazte batek. 19 ditu orain eta oraindik ez dela aspertu esaten du. Ahal izanez gero arruta ostiralean hasi eta astelehen goizera arte etxetik kanpo egoten da.

Etxetik kanpo horrenbeste denbora egon ondoren, ohean sartzeko irrikitan egoten dira makinazaleak, baina etxeko atea zabaltzen dutenean, gurasoen galdeketa amaiezinarekin egiten dute topo: “Gurasoek ez dakite non eta



Egun osoan zehar egoten dira zabalik diskoteka batzuk.

zertan ibiltzen naizen, bestela kateak jarriko zizkidaten etxetik ez irtetzeko. Argi dago niri gustatzen zaidan giro hau eurek ez dutela gustoko eta beti dau-

de non egon naizen galdezka” esaten du 19 urteko mutilak kezkatu.

Jende nagusiak musika berri bat eta ondo pasatzeko era

berri bat sortu dela ulertu nahi ez izanak amorrua ematen die baina egiten dutenarekin pozik daude eta ez daukate uzteko asmorik.

Droga barik martxarik ez?

Diseinuzko drogek harreman estua dei dute diskoteketako giroarekin. Erraz lortu daitezke eta legeak onartzen ez dituen arren, jendeak beldurrik gabe hartzen ditu.

“Extasiak” (Metilenedioximetilamfetamina edo MDMA), “Tripiak” (LSDa), Kokaina, “Speed”-a (Anfetamina sulfatoa), Hatxisa... guztiak daude edonon eta edonoren esku. Bakoitzak efektu desberdinak sortzen ditu baina guztiak dira estimulante edo aluzinogenoak: kontsumitzaileak umore hobea, energia izugarria eta poza sentitzen lortzen dute.

Garestiak dira baina drogarik gabe martxarik ez dagoela esaten dute elkarriketatutako lagunek: “Diskotekan ondo pasa dezaket drogarik hartu gabe baina droga hartuta askoz hobeto”, “drogarik hartu behar ez dudala jakiten badut, ez naiz joaten” aitortzen dute diskoteketara doazen lagunek.

Extasiak pilula itxura dute eta dosis batek 2.500 pta. balio du. Diseinuzko drogarik berriena da. Kolore, forma eta tamaina desberdinetakoak daude eta hartu eta gero, ordu erdi edo ordu bete-

ra egiten dute efektua. Batzuk dosis bakar batekin nahikoa izaten dute gaua pasatzeko. “Pastila bat jan eta gero gaizki pasa duela esaten duen inor ez dago. Ez dakit zer sentitzen den azaltzen, baina zoragarria da... Pozik jartzen nautte. Niri bihotz marrazkikoak gustatzen zaizkit baina zikinkeria asko sartzen dizkiete barruan, arratizida eta guzti. Batekin nahikoa izaten dut gaua pasatzeko.”

LSD aluzinogenoa ere asko kontsumitzen da eta droga zaharra da. 60. hamarkadaren bukaeran eta 70. aren hasieran modan egon eta gero, asko jeitsi zen bere kontsumoa, baina 1990. urtean “Acid House” mugimendua sortu zenean indarra hartu zuen berriz ere: “Tripi” izenaz ezagutzen da. Bere itxura zigilu batena da, beraz, LSDarekin bustitako paper zatiak dira “tripiak”. Zigilu bakoitzak 600 eta 1.000 pta. bitarteko prezioa du.

Speed-a (Anfetamina sulfatoa)

omen da gorputza minduen uzten duen droga: “Gaua pasatzeko 4 dosirekin nahikoa izaten da baina hurrengo egunean gorputza oso txarto esaten da”.

Dena dela, diskotekara joan eta ezer hartu gabe pasatzen duen jendea ere badago eta gainera, drogak, diskoteketan ez ezik, kalean eta edozein herritako festetan ere kontsumitzen direla esaten dute. Horregatik kezu dira; euren ustez diseinuzko drogen kontsumizioa diskoteketan ibiltzen diren gazteekin bakarrik erlazionatu du gizarteak

eta diskotekak droga eta drogazale biltokiak bailitzan tratatzen dituztela uste dute: “Alkohola ere droga bat da eta zapatueta kalean ibiltzen direnek asko edaten dute. Bestalde extasis bat jan edo koka pixka bat sartzeko ez dago diskotekara joan beharrik; edozein zapatu gauean jendeak egiten duen gauza arrunta da hori” esaten du diskotekazale batek kexuka.



Tai-Chi: borrokatik urrun, lasaitasunetik hurbil hurbil

Iaz egin ziren lehenengoz Tai-Chi ikastaroak Arrasaten. Astean bi aldiz, Musakolako parroki aretoan, lehenengo eskolan, biltzen dira kirol honetan dabilzanak. Eskoriatzan egoten ziren lehen, baina ikusirik hemen baze-goela talde bat osatzeko adinajende, bertan ere egitea erabaki zuen Valentin Zurbano irakaslea. Era horretan arrasatearrek ez zeukaten Eskoriatzara joan beharrik; eskoriatzarrek, berriz, beraien ordutegiarekin segi zezaketen.

Karatean hasi Tai-Chian bukatu

Valentin Zurbano irakaslea bera, ia erdi kasualitatez iritsi zen kirol honetara. "Txikitari karatea egiten hasi nintzen. Gero apurka apurka mundu horretan sartuz joan nintzen, Tai-Chia ezagutu nuen arte. Garai hartan hemen ia ez zegoen zerbaitez inor, eta liburuak irakurrita ikasi genuen inguru horretan mugitzen ginenok. Kanpora ere irten naiz urte hauetan, Españara, Frantziara eta iaz Txinan egon nintzen, horrela gehiago ikasten da eta".

Txinan sortu zen Tai-Chia. Normala beraz, Valentin hara joan izana arte martzial honi buruzko gauza gehiago ikastera. Eta berak ikasteko beharra badu, zer esanik ez Tai-Chia zer den ere ez dakitenek. "Osasun aldetik ondo egotea helburu duen arte martziala da, mugimenduek osatzen duten kate bat. Judoa ere, oinarrian, hori da, baina egurraren ematera bideratu dute. Luzamenduek egiten hasten gara, harnasketa ondoren, kontzentrazio eta erlajazioa segidan eta mugimenduek kateatzen bukatzen dugu". Belaunalditik-belaunaldira




Tai-Chi taldea Musakolako eskola zaharrean.

datozen mugimenduak egiten dira Tai-Chian, bakoitzak bere mailan eta bere erritmora. Valentinek lantzen duen arloan, bat baino gehiago dira eta, 108 mugimendu daude.

Beste arlo gehiago daudenez baita mugimendu gehiago ere. Ikasteko hainbeste egonda, nola jakin batek irakasteko gai dela? Beste gauza askotan bezala, zintzotasunez jokatu behar eta norberak ikusi noraino iritsi den. Hori esaten du behintzat Valentinek.

Gorputza eta buruaren lanketa

Maila egoki batera iristeko egunero lan egin beharra dagoela dio Zurbano, luzamenduekin hasi mugimenduetan bukatu arte. Norberaren garapena dago jokoan, hemen ez dago eta ez gerrikorik, ez mailarik, eta ezta txapelketa edo lehiaketarik ere.



Valentin Zurbano irakaslea.

"Gorputza eta aldi berean izpirutua landu nahi dira. Egunero entrenatu beharra dago eta hasieran oso zaila da hori, baina oso garrantzitsua. Nik neuk etxean pare bat ordu egiten ditut. Bikoteen arteko entrenamendua ere garatzen dugu, sentsibiltatea garatzeko. Helburua zera izaten da: besteak egiten duen edozein mugimen-

du igartzea, hortaz konturatzeta. Azkenean indarra indarraren kontra ez erabiltzea da".

Astean bi aldiz

Eguneroko lanaren zailtasuna medio, kirol honetan hasi nahi dutenei erraztasunak ematen dizkie Valentin Zurbano. "Alde batetik edozein momentutan etorri eta izena eman dezakete; bestetik, gustatzen ez bazaie edo ohitzen ez badira, taldea uzteko aukera dute, aurrez ezer ordaindu barik. Hau da, aproba egiteko aukera". Astearte eta ostegunetan biltzen da Arrasaten Tai-Chian dabilzanen taldea, lehen esan bezala Musakolako parrokiako aretoan. Aprobata egin nahi izanez gero, bertara joan edo Valentin Zurbanoarekin harremanetan jartzea besterik ez dago, 71 41 91 telefonora deituz.



Eskiatzeko gogoa duenak ez du aitzakiarik aurten Besaideren ezkontza ikusi ondoren.

Besaidekoak astebururo Formigala joateko plana

Joan den asteburuan eman zion hasiera Besaide mendizale taldeak 1996ko eski kanpainari, Formigala egindako irteeraren bidez. Errepikatu egingo da joan den asteburuko irteera hori asteburu honetan, baita gaurtik martxoaren 23ko asteburura arteko guztietan ere. Formigal izango dute helburu Besaidekoek astebururo, larunbatean goizaldeko 5ak aldera irten eta igande gaueko 9etan itzultzeko.

Besaideko bazkideek 10.500 pezeta ordaindu beharko dute asteburu bakoitzeko, edozein arrasatearrek 11.000 eta gainontzekoek 12.000. Ordainke-

taren barruan, bidaia bideo-dun autobusean, pistetako aseguru, hoteleko egonaldia pentsio-erdian eta erremonteen erabilera mugagabea sartzen dira.

Horretaz aparte, eskia-tzen ikasi nahi dutenendako ikastaroetara joateko aukera ere badago, 2.100 pezeta 4 orduko ikastaroagatik. Ikasle edo langabetu karneta edukiaz gero, erdi-prezioan.

Aste Santuan Alpeetara

Asteburuko errutina apurtu nahi dutenentzat, Aste Santurako eski ekintza berezia ere antolatu du Besaidek, apirilaren 5etik 13ra ego-

naldia Vall D'Iseren eta Alpes Tignes-en. Prezioak honako hauek: bazkideak 54.000 pezeta eta gainontzekoak 55.000; hamahiru urtetik beherako bazkideek 51.000 pezeta, ez direnak 52.000.

Joan-etorria, astebeteko egonaldia 4 eta 6 pertsonako apartamenduan, eta estazio bietako erremonteen erabilera mugagabea sartzen dira aurrez aipatutako prezioan. Dena dela, baliteke eskiatzera baino ingurua ezagutzera joan nahi duen norbait egotea; horiendako ere, bada Besaidekin joateko aukera, 19.000 pezeta gutxiago ordaindu eta kitto.

Pilotariak San Juan Torneoan

San Juan Torneoari dagozkion partiduak jokatuko dira asteburu honetan ere: Larunbatean, arratsaldeko 4etatik aurrera 5 partidu; igandean, 11etan. Deba Arroako promozio txapelketan berriz, derbia, goizeko 10etan Iturripen Aretxabaletaren aurka.

Mondrak kanpoan irabazteko aukera

Kanpoan irabazi eta sailkapenean areroari aurea hartzeko aukera izango dute arrasatearrek. Ondarroara joan behar du Mondrak, igandean arratsaldeko 4etan indarrak neurtzeko Aurrera Ondarroa taldearekin.

Urbina-Maltzaga garaipenaren bila

Azken partiduko jokoa ikusita, baikortasuna nagusi saskibaloian. Samaniegok zapatuan jokalaria guztiak izango ditu bere agindueta- ra, Burgosen arratsaldeko 7.30etatik aurrera Maristas taldeari aurre egiteko.

Oso zaila eskubaloikoentzat

Lan nekeza izango dute Herreron mutilek larunbatean arratsaldeko 6etatik aurrera, Avilesina liderrari aurre egitea. Hori berez gutxi balitz, partidua Astuariasen jokatuko da, eta ezin beraz ahaztu kantxa faktorea.

S. CARRASCAL S.L.

Bertan egindako:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tfnoa /FAX: 79 01 82

BITTORI ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua

Espezialitateak: legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tfnoa: 79 55 82

OSORIK PUB

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

Jon Ozaeta

Argazki lehiaketan lehenengo aldiz parte hartu eta saria etxeratu

Mutil umila eta argazkilari paregabea da 25 urteko gazte hau. Orain arte lehiaketetan sekula parte hartu ez eta Santamasetako argazkietakoan lehenengo saria jaso du. Garaipen horrek bere buruarekiko konfidantza eman eta horrenbeste maite duen musikari buruzko argazkiez gain, beste gauza batzuei argazki onak egiteko nahikoa abilezia baduela ere erakutsi dio.


— Zergatik erabaki zenuen lehiaketara aurkeztea?

— Anaiak animatu ninduen. Ez zen Santamas egunean kalera argazkiak egitera ateratzen nintzen lehenengo urtea, baina bai Santamas lehiaketan parte hartzen nuen lehena. Orain arte egindako argazkiak niretako egiten nituen eta gainera diapositibak izaten ziren. Oraingoan berriz, beste planteamendu batekin atera nituen argazkiak.

Bestalde, azken boladan argazki asko egiten ari naiz baina gehienak musika kontzertuetan inspiratutakoak, heavy metal kontzertuetan oinarritutakoak hain zuzen eta horrek konfidantza bat eman dit: kontzertuetako argazkiak egiten badakit, beste gai bati buruzkoak egiten ere jakin behar dut. Horregatik erabaki nuen Santamas argazki lehiaketan parte hartzea.

— Beraz, musikazale amorratua ere bazara...

— Bai, musika da nire denborapasa, nire pasioa eta interpretatzeko belarririk ez daukadanez, horrenbeste emozioz nauten momentu horiek argazkietan jasotzea



gustatzen zait nolabait gordetzeko.

— Lehenengo aldiz parte hartu eta irabazi. Nola asमितु duzu?

— Oso sorpresa handia izan zen. Dena dela argazki asko bota nuen eta bateren batek ondo atera behar zuen derrigorrez. Bestalde lehiaketetan esperientziarik ez dudala kontuan izanik eta oso argazkilari onak zeudela kontuan hartuta, zortea izan dudala uste dut.

— Garaipenak zuk ere argazki onak egiten badakizula baieztatu zuen, ez?

— Garaipenak begiak zabaltzea eragin dit eta nos-

ki, beste alor batzuetan lan egiteko konfidantza hartu dut ere. Beste perspektiba batekin lan egin dezakedala konturatu naiz, orain arte atera ditudan argazkiak niretzat eta nik nahi nuelako atera ditut eta. Orain berriz argazkilari-tza publikoagoa egiteko gauza naizela ikusi dut.

— Datozen argazki lehiaketetan parte hartuko duzu?

— Badukat haratuzteetako lehiaketan parte hartzeko asmoa baina sariak baino, ikasten jarraitzeko gogoak estimulatzen nau gehiago. Argazkilari moduan nire burua hezi nahi dut. Gainera dirua oso hotza da, askoz gehiago balio du argazki bat ateratzerakoan sen-

titzen den emozio pertsonalak.

— Lehiaketa baten parte hartzen zenuen lehen aldiz izanik, jaso zenuen norbaiten laguntzarik?

— Bai eta laguntza handia gainera. Nire anaiak, Jabierrek, laguntza teorikoa eman zidan, hau da, argazkiak nola errebelatu behar diren azaldu zidan. Andoni Epeldek berriz, bere Nikon 401 argazki makina utzi zidan. Andonik argazki kamara horrek dituen aukera guztiak erakutsi zizkidan, bere makinaren sekretu guztiak deskubritu zizkidan.

— Zer ikusten saiatzen zara objetiboaren bestaldera?

— Objektiboarekin begietara atentzioa deitzen duten gauzak bilatzen ditut, hau da, orokortasunean agertzen ez diren gauzak.

— Zuri-beltzeko ala koloreko argazkiak nahiago dituzu?

— Orain arte kolorezale amorratua izan naiz baina txuri-beltzak beste aukera batzuk dituela konturatu naiz. Ez dut bata bestea baino nahiago; desberdinak dira. Dena dela, zuri-beltzak gauza bat du oso ona; argazkia norberak egin eta errebelatzen duela, beraz, koloreko argazkia baino pertsonalagoa dela esango nuke. Azkenean, norbaiti argazki bat egiterakoan bere arimaren zati bat lapurtzen zaiola esan ohi da baina zuri-beltzeko argazki bat egiten denean, arimaren zati bat jartzen da ere, argazkia norberak egin, errebelatu eta lantzen duelako.

“Garaipenak begiak zabaltzea eragin dit eta beste alor batzuetan lan egiteko konfidantza hartu dut”

Markeliñe antzerki taldearen azken lana

Amaia antzokian ikusteko aukera

Gaur ostirala eta bihar larunbata gaueko 10.30etan luxuzko antzerki talde baten bisita izango da Amaia antzokian. Zornotzako Markeliñe antzerki taldeak bere azken lanarekin etorriko da Arrasatera, Kale Gorrian-La GarboSA antzezlanarekin.

Azpeitian ospatutako Euskadiko XIII. Antzerki Topaketan Ikusleen saria eta Kritikarena eskuratu zuen Markeliñek obra berri honekin, beraz, kalitate handiko lana da asteburuan ikusi ahal izango dena.

Behin baino gehiagotan egon da Markeliñe antzerki taldea Arrasaten eta beti erakarri izan du ikusle go handia. Kubierno eta Entretejas obrek izan zuten arrakasta gogoraztea lekuko.

Hitzik gabeko antzerkia

Hitzik gabeko antzerkia, mutua, da Markeliñek oraingo honetan dakarren, . Jose Ibarrolak zuzendutako obra honetan Iñaki Egiluz eta Javier Renobales aktoreek egiten dute lan. Gestualitate da obra-



Oso sarritua izateaz gain kritika onak jaso du "Kale gorrian-La GarboSA" obra honek.

ren oinarria eta hitzik ez izan arren, gustora ikusi eta oso entretenigarria den obra ei da Kale Gorrian-La GarboSA.

Eszenatokia ia ia biluzik ageri da, ez baita iluminazio eta dekorazio muntaia handirik erabiltzen. Istorioa edozein kale publikotan koka daiteke eta protagonistak bi kalegarbiltzaile dira. Eskuartearen darmaten karrotxoak eta erratzak

dira bi aktoreek erabiltzen dituzten instrumentu bakarrak.

Aktore bakoitzak pertsonalitate desberdineko bi kalegarbitzaileen papera betetzen du: Renobalesek langile alferria izan arren, profesioaren eta bizitzaren sekretuak erakusteko prest dagoen langilearen papera betetzen du; Egiluz berriz, esperientziarik gabeko gazte sutua da.


Antzezlanean nahaste, klown, amodiozko abentura eta dantza egoerak sortzen dira besteak beste, baina erakargarriena Jabier Renobalesen gestualitatearen espresibitatea ei da. Jendea antzokitik harrirtuta ateratzeko modukoa diotenez.

Sarrerak takilan salduko dira 800 ptatan, Gazte Txartelarekin 600ean.

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral
Setatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99



- Estetika kabinetea
- Larruzko artikuluak
- Bitxitegia
- Opariak

Kanpatorpea, 4
Tfnoa: 79 12 19 ARRASATE

LORTU MUSIKA TALDEA

KONTAKTOAK
(943) 79 46 86
(943) 21 26 96
(94) 673 72 90

Plus Ultra taberna

Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tfnoa: 79 20 57

Hilbera kafetegia

Uribarri Etorbidea
ARRASATE
Tfnoa: 79 22 70

Monte taberna

Maalako arrabala, 11
Tfnoa: 79 20 56

UGARTE

Industri
hornidurak

Arrasate pasealekua
Tfnoa: 79 83 96 / 79 23 00
Telefax: 793412

Gida

Arrasate
Aretxabaleta
Eskoriatza
Leintz-Gatzaga

96

ADI!

Zure telefonoa agertzen ez bada edo akatsik aurkitzen baduzu dei egin lehenbailehen 77 08 15 telefonora edo zatoz ARKOra (Azoka, 1). Otsailaren 23an egon litezkeen akatsen zuzenketa orri bat argitaratuko dugu.

Mila esker.

ARKO • ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

Leintz Bailarako profesional eta zerbitzu guztiak zure esku.

Zure telefonoaren lagunik onena!

● Javier Villanueva

Bosnian ez irabazlerik ez galtzailerik

“Lenin y las naciones”, “Diccionario crítico de la autodeterminación”... Nazionalismoa gaitzat harturik, hainbat dira Carlos Villanueva idazleak idatzi dituen liburuak. Azkena Yugoslavia ohiari buruzkoa izanda: “Puente roto sobre el Drina”.

Zutik-ek antolatuta eta Bosniara bakea eraman duen Daytongo akordioak hitzegiteko, asteartean hitzaldia eman zuen Monterronen.

– Bosniako gatazka arrazoi etnikoek eragin dutela esaten da. Ez dago beste arrazoirik?

– Zer da etnia? Etnia bati buruz hitzegitean, komunitate baten gainean ari gara eta komunitate horrek hizkuntz ezaugarriak, ekonomikoak, kulturalak, sozialak... ditu. Bosniako gatazka arazo desberdinek eragin dute. 80. hamarkadako krisi ekonomikoak, erregimenaren krisiak eta boterearen legitimitatearen zegoen hutsuneak zerikusia izan dute. Gainera, nazionalismo zentralistak ez du arrakastarik izan eta nazionalismoek irabazi dute.

– Gerra hasi zenetik bakea

lortzeko proposamen desberdinak egin dira baina ez dute aurrera egin. Zergatik onartu dute Daytongoa?

– Horrela da. Daytonen eta oso denbora motzean gainera, akordioa lortu zen. Aurrez egindako proposamenak Daytonen egindakoarekin konparatzen baditugu, ia berdinak direla ikusiko dugu. EEBBk egindako proposamenak ez zuen edukin berririk, aurrekoen berdina zen.

– Zein berezitasun zuen akordioak?

– Daytonen sinatutakoa ez da garaipen edo porrot bat, ez dago ez irabazlerik eta ezta galtzailerik ere. Aurreko proposamenen arabera, berriz, serbiarrak irabazle ateratzen ziren eta horrek akordioa lortzea oztopatzen zuen. Indarren oreka beharrezkoa zen eta Daytongo akordioak hori ekarri du. Gerrak aurrera egin duen heinean hiru aldeek ikusi dute jarraitzeak ez zituela egoera hobea batera eramango.

Jendeak, gainera, orain badaki gerran egotea zer den. Gerra hasi zenean manipulazioak aukerak zituen, baina orain ez da erraza gerran jarraitzeko eskatuz jendea manipulatzea. Jendeak bakea nahi du.



– Zerekarri du akordioak?

– Errealitate berri bat. Akordioaren arabera, alde bakoitzak eremu seguru bat izango du. Hala ere, etorkizunean harremanetan bizi daitezela lortu nahi da. Batera ezin badira konpondu, ea bizilagun izanda konpon daitezkeen.

Akordioaren arabera, alde bat serbiarra izango da, errepublika serbiarra, eta bestea kroata-bosniakoa, federazio kroata-musulmana. Gai batzuetarako estatu bakarra egongo da baina bestetik, hiru komunitate daudela onartzen da.

Bestalde, ejerzitoek hor jarraituko dute eta bizilagunek alde batera edo bestera mugitzeko askatasuna izango dutela esaten da, baina gogorik izango dute?

Lehengora ez itzultzea lortu nahi da; errefuxiatuak itzultzen hasten direnean ez

daitezela lehengo tokietara itzuli. Errefuxiatu serbiarrak errepublika serbiarrera itzuli beharko dira, eta gainontzekoak bestera. Gerrak ekarri duen errealitate berrira egokitu beharko dute.

Bigarren apostua denbora pasatzen uztea da eta aurreago ikusi ea serbiarrek Serbiarekin bat eginda jarraitu nahi duten, kroaziarrek Kroaziarekin eta azkenik, ea hirugarren estatu bat eratu beharko den. Nire ustez, federazio kroata-musulmanak Kroaziaren babesean iraun dezaten nahi da, hirugarren estatuauren aukera zaila da eta. Izan ere, kroaziar gehienak musulmanak gehiengoa ziren tokietan bizi zirenez, kroaziarrak eta musulmanak banatzea oso zaila izango da.

– Daytonen lortutakoak iraungo du?

– Elementu egonkorak eta hauskorak ditu, baina esan bezala aldeek nahi zuten bakea eta hori kontuan hartu behar da. Garrantzitsuena da gerra geratzea lortu dela, eta hori garaipen handia izan da.

● “Daytongo akordioaren arabera alde bakoitzak eremu seguru bat izango du, baina harremanetan bizi daitezela lortu nahi da”



Garagartzako auzoa, 1932. urtea, sei urtetik hamalau urtera arteko neska-mutikoak argazkian, orduan eskolan zebiltzanak. Argazkian daude, noski, orduan Garagartzako eskolan zebiltzan neska-mutiko denak, laurogeitamar inguru.

Gauregun eskoletan espezializazio handia dago, maisu edo andereño bakoitzak du bere zeregina, ikasketa mota bat irakasle bat, baina orain

ez dela denbora gehiegi irakaslearen figura beste bat zen: umeen osasunaz arduratzen zen, edozein gai irakasteaz, errekreoa zaintzeaz, gurasoei asterokoa edo hilerokoa kobratzeaz.... 1932ko Garagartzako maisua, Ziriako Jauregi jauna, ere horrelakoa zen, berak zuen eta eskolaren ardura osoa. On Ziriako ei zen jaun eta jabe, neska eta mutilena, txiki eta handiena... denak talde bate-

an bilduz hobeto zaintzeko, baina bakoitzaren beharrei nolobait erantzunez.

On Ziriakok ez zuen seguruaren batere arazorik izango ume guztien izen-abizenak ondo jakiteko, baina Arrasate Pressentzat lan izugarria litzateke denen berri zuzena ematea. Gaizki emateko arriskuarekin gainera. Hortaz irudiarekin konformatu behar. Bakoitzak bila dezala bere burua edo ezagunen batena.

**ONGI ETORRI,
konpainia onean
egoteak badu
abantailik.**


**SEGUROS
BILBAO**

☛ Bizitza
☛ Etxebizitza
☛ Autoa
☛ Etabar

Otalora Lizentziatua, 5


20.500 ARRASATE

☎: 79 70 67

Z E R N A H I A G O ?

Lurdes Bengoa

San Andresko "Todo a Cien" dendakoa



- Zenbat produktu dituzue dendan? 100tik gora.
- Zergatik dator horrenbeste jende? Denetarik dagoelako eta bizitza garesti dagoelako.
- Asko saltzen da? Bai, izugarri.
- Jendea zenbat diru gastatzera heltzen da? 10.000 eta 20.000ko erosketak ikusi ditut.
- Zer saltzen da gehien? Garbitzeko produktuak.
- Eta gutxien? Plastikozko poteak.
- Zergatik da dena hain merkea? Kate bat delako eta zuzenean maioristei erosten diegulako.
- Emakumezkoak ala gizonetzkoak datoz gehiago? Emakumezkoak, baina gizonetzkoak ere badatoz.
- Zuk erabiltzen duzu dendako produkturik? Bai.
- Noiz etortzen da jende gehiago? Ostiraletan azoka dagoenean eta asteazkenetan.
- Gustatzen zaizu zure lana? Bai.
- Telefonoz hitzegin ala eskutitzak idatzi? Telefonoz hitzegin.
- Erosi duzu zerbait beherapenetan? Bai, mikro-uhin bat.
- Nora joaten zara arropak erosten? Arrasaten erosten ditut.
- Musika talde bat? "El último de la fila".
- Zer gosaltzen duzu? Kafesnea besterik ez.
- Griperik hartu duzu? Ez.
- Zer moduz hasi da 96a? Normal.
- Zer egiten duzu zapatu gauetan? Etxean lasai-lasai geratu.
- Kirolari bat? Beloki, jatorra da eta.
- Ikusten duzu Goenkale? Bai.
- Zein pertsonaia gustatzen zaizu gehien? Maria Luisa eta Joxe Mari.
- Asko erretzen duzu? Pakete bat egunero.

LABURRAK

Balleta otsailean

Arrasate Musikalek adierazi duenez, Pragako Ganbara Balleta etorriko da Arrasate-ra otsailaren 10ean. Dantza talde hau Europako onena da. Bestalde, apirilaren bigarren hamabostaldian bi opera entzuteko aukera izango da Arrasaten. Opera taldea eta emanaldi egunak konfirmatu barik daude oraindik.

Arrasate Kantari II

Zabalik jarraitzen du AEDk antolatu duen Arrasate Kantari jaialdian izena emateko epeak. Hamabost urtetik gorako edozein pertsonak, taldek zein koadrilak har dezake parte, gehienez zortzi lagunek osatutako taldeak direnean. Talde edo parte hartzaile bakoitzak euskarazko bi abesti kantatuko ditu eta gehienez 6 minutuz luza daiteke. Jaialdian parte hartzeko izenematea AEDn egin behar da otsailaren 16a baino lehen.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55


Denborapasak

• **ESAERA** •

“Zuretako ondo bizi nahi baduzu, besteentzat bizi beharra daukazu”

SENECA

• **JEROGLIFIKOA** •



Nola gertatu zen istripua?

• **GURUTZEGRAMA** •

1	2	3	4	5	6	7
8					9	
10			11			
12		13				
14					15	
16				17		
18			19			

J. B. AGORRIA

Horizontalak 1.Otxoa, *Barrelekaixo-ka* aurkezten du. 6. Amerizioa. 8. Grezian erabiltzen den hizkuntza. 10. Txakur. 11. Itsasuntziaren goiko ertza. 12. Kirolen bat egiten duen pertsona. 14. Seinalea, marka. 15. (Ald.) Hitz ematea edo baieztapena. 16. Jakituriaren jainko egip-toarra. 17. Mesedez. 18. Itsasoan ugari. 19. Azkenengo joan den urtea.

Bertikalak 1. Moldatu. 2. Alaitasuna adierazten duena. 3. Alfabetoko 4. letraren izena. 4. Pesimista. 5. Irango moneta-unitate nagusia. 6. Etsai. 7. Gaiztakeria. 9. Ken soinekoa. 13. Bibliaren araberako Boozen emaztea. 17. Joan aditzaren erroa.

• **HOROSKOPOA** •

Aries Opariak egitea gustatzen zaitzu baina gutxi gastatuz gero.

Taurus Ispiluaren aurrean jartzen zarenean, zer ikusten duzu?

Gemini Noizean behin disimulatu eta aurpegi ona jarri.

Cancer Oraindik ez duzu jaten ikasi. Zurekin ezin daiteke inora joan.

Leo Elegantea zarela uste duzu baina asko falta zaizu oraindik.

Virgo Berriketan asko egiten duzula jartzen zaizu burukomina.

Libra Zer eskatu diozu urte berriari. Betikoa berriz ere?

Scorpio Karlos Argiñano zarela uste duzu, baina antzik ere ez!

Sagitaris Erregeetako erroskoa jateko gogo duzula? Berandutxo.



Capricorn Sagardo zalea zarenez txotx egin beharko duzu laster.

Aquarius Urtea dirutsua izango da, beti ere lanean hasten bazara.

Piscis Esperientzia garrantzitsua da baina ez dena.

Etxe-Aundi

Torreauzo, 9
Tfnoak: 78 19 56 / 78 32 90
OÑATI



Zuen ezkontza gurekin ospatzen baduzue,
EZKONTZAKO CAVA GURE KONTU!!
Egin zure erreserba orain!!

Anna de Codorniu

Albiste aurkezpena egunero eguerdietan

Duela urte batzuk egiten zen moduan, eguerdiko ordubatean albiste aurrerapena eskainiko du Arrasate Telebistak.

Bost minutu inguruko emisioa izango da eta arratsaldean sakonago jorratuko diren gaien berri ematea izango du helburu. Albiste aurrerapenean ez da aurkezlerik egongo eta albisteak bata bestearen atzetik jarraian joango dira.



KOMIKIA



Zeguzar.

Etxe-Aundi

1. PLATERA

Bi plater aukeran

Etxeako gosoteria

2. PLATERA

Haragia edo arraina

Etxeako arto gornia eta beltza

Kafea

Guztira 2.500 pta. (B.E.Z. barne)

SOLUZIOAK

Horizontalak: 1. Eider, 6. Am, 8. Greziera, 10. Or, 11. Karel, 12. Kiro-lari, 14. Iker, 15. Niz, 16. Tol, 17. Oiol, 18. Ur, 19. Iaz.

Bertikalak: 1. Egokit, 2. Inrikor, 3. De, 4. Ezkor, 5. Rial, 6. Arento, 7. Mallizia, 9. Erantz, 13. Rul, 17. Oa.

Jeroglifikoa: Bat-batean.

PROGRAMAZIOA



19 Ostirala

13.30etan
Albiste aurrerapena
20.00, 20.30 eta 21.00etan

Berriak

9.30etan
Astebete
Gaia: Titietako minbizia detektatzeko programa.
Gonbidatua: Jone Alzibar.
Ginekologoa eta programako teknikaria.

20 Astelehena

13.30etan
Albiste aurrerapena
20.00, 20.30 eta 21.00etan

Berriak

21.30etan
Mondrasport

21 Asteartea

13.30etan
Albiste aurrerapena
20.00, 20.30 eta 21.00etan

Berriak

21.30etan
Barrelekaixoka

22 Asteazkena

13.30etan
Albiste aurrerapena
20.00, 20.30 eta 21.00etan

Berriak

21.30etan
Nor Nori Rock

23 Osteguna

13.30etan
Albiste aurrerapena
20.00, 20.30 eta 21.00etan

Berriak

21.30etan
"Elkartean" saioa, Tomas Axpek eta Karmele Zuazubiskarrek aurkeztuta.
Elkartea: Alkartu

24 Ostirala

13.30etan
Albiste aurrerapena
20.00, 20.30 eta 21.00etan

Berriak

21.30etan
Astebete

Etxebizitzak

- **Biltegi bezala erabili daitekeen lokala alokagai merke merke.** Kalealdean dago eta 34 m² ditu. Tfnoa: 79 20 48.
- **Garaje itxia salgai edo alokagai** Larrea plazan. Tfnoa: 79 39 50. Gauez dei egin.
- **Aldagainen garaje plaza salgai.** Prezio interresgarria. Tfnoa: 79 77 81.
- **Pisua alokagai Zarugalden.** Tfnoa: 79 36 79.
- **Garajea salgai Altamiran.** Tfnoa: 79 70 70.
- **Erdiko kalean pisua alokatzen da.** Sukaldea jarrita dago. Tfnoa: 79 18 06.
- **Torreviejan apartamentua alokatzen da.** Hondartzatik 500 metrora, guzti zantzia (telebista, ikuzkailua), autobus geltokiaren ondoan. Oso aproposa lau lagunendako. Prezio bereziak jubilatuentzat. Tfnoa: 78 14 72.
- **Pisua salgai Roneko etxeetan.** Tfnoa: 79 85 79. Rafa.
- **Jakan apartamentua alokatzen da eski garaian.** Garajea du. Tfnoa: 70 60 21. Gauez.

Lana

- **Klinikako eta geriatriako laguntzailea** pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 39 09.
- **Emakume euskalduna prest umeak** edo pertsona nagusiak zaindu eta etxeko lana egiteko. Tfnoa: 79 07 73.
- **Ingeleseko klase partikularrik ematen dira,** esperientziaduna naiz. Tfnoa: 79 28 98.
- **Sukaldari lana egiteko gertu.** Tfnoa: 79 04 53 edo 13 36 76.

- **Arratsaldetan umeak zaindu** edo etxeko lanak egiteko neska gertu. Tfnoa: 77 07 58.
- **Neska euskaldun bat umeak zaintzeko prest.** Tfnoa: 79 04 10.
- **Irlandatik etorri berria ingelesezko klase partikularrik emateko prest.** Tfnoa: 79 21 56.
- **Ileapaintzaile diplomaduna** lan egiteko prest. Tfnoa: 79 63 18.
- **Langabezia dagoen irakasleak** euskaraz zein erdaraz klase partikularrik emateko prest. Tfnoa: 79 94 04. Dei egin eguerdian. Marijo.
- **Emakume euskalduna behar da umea** zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 77 03 32.
- **Emakume euskalduna** eta esperientziaduna umeak zaintzeko gertu. Tfnoa: 79 56 81.
- **Umeak zaindu edo denda baten lan egingo nuke.** Dei egin eguerdian edo gaueko 10etatik aurrera. Tfnoa: 79 95 92. Rakel.
- **Neska bat behar da etxeko lanak egiteko.** Tfnoa: 79 89 32.
- **OHO, REM nahiz BUPeko** matematikako klaseak emateko gertu. Tfnoa: 79 90 46. Susana.
- **Matematikazko klaseak:** algebra, kalkuloa, probabilitatea eta estatistika, ematen ditut. Tfnoa: 79 09 72. Joxe Felix.
- **Neska euskalduna bulegoak garbitu,** etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko gertu. Tfnoa: 79 53 57. Maider.
- **Jostuna behar da denda baten erropa konpontzeko.** Bidali datuak Arrasateko 259 postakutxatilara.
- **Neska bat behar da etxeko lanak egiteko.** Tfnoa: 79 05 01.
- **Zazpigarren maila ikasten ari den** ikasle bati, gatzelerazko, euskarazko eta ingelesezko klaseak emango dizkion irakaslea behar da. Tfnoa: 79 54 14.

- **Lortu musika taldea ezkontzetan jotzeko gertu.** Tfnoa: 79 46 86. Txapel.
- **Neska gaztea umeak zaindu,** etxeko lanak edo lan egiteko gertu. Tfnoa: 79 37 09.
- **Promotora batek kapitala jarriko duen arkitektu bat behar du.** Dei egin ordu batetik hiruretara 79 03 80 tfnora. Prieto.

Salerosketak

- **P-12 Sanyo bideo kamara salgai.** Berri berria dago, estreinatuta barik. 75.000 pta. Dei egin eguerdian 79 51 27 tfnora. Jabi.
- **Baserriko kiwiak salgai.** Etxeraino eramango dizkizugu. 125 pta. kiloa. Tfnoa: 79 97 84.
- **Trabesiako skia egiteko botak salgai.** Koflach Veluga 43-44 zenb. hiru aldiz erabilita. 12.000 pta. Bolle MicroEdge II eguzki betaurrekoak ski edo txirinduan ibiltzeko aproposak. 4.000 pta. Tfnoa: 79 02 10. Asteburutan.
- **Bigarren eskuko 486 TX2** ordenagailua erosi nuke. Tfnoa: 79 31 47. Josema.
- **Idazmakina elektronikoa salgai.** AEG Carrera II modeloa, memoriaduna, LCD pantaila... la berria. Dei egin 77 14 34 tfnora denda orduetan.
- **Baby-Confort kapota kotxea salgai.** Aulkia era badauka. Bi urte baino ez du. Tfnoa: 44 53 68.
- **Montesa Cota 3-10** trialeko motorra saltzen dut. Tfnoa: 79 97 72.

Denetarik

- **Kotxeko giltza aurkitu dut asteburuan** Haizea tabernaren inguruan. Dei egin Arrasate Pressera. Tfnoa: 77 05 65.
- **Urrezko pultsera bat galdu zait** San Andres eta Erdialde artean. Rosita. Tfnoa: 79 26 25. Sarituko da.

Aste Gazte

Bekak

• "Otalora Programa". Enpresa kooperatibak kudeatzeko prestakuntza ikastaroa. Industri injinari, injinari tekniko zein enpresa zientzian lizentziatuta daudenei zuzendua. Epea: urtarrilak 31.

• Zientzia eta Hezkuntza Ministraritzak, elkarrizketa laguntzaile plazak deitu du hainbat herrialdetan gatzelera irakasteko: Frantzia, Australia, Italia, Alemania eta EE:BB. Filologian lizentziatuei zuzenduta. Epea: otsailak 8.

Ikastaroak

• 16 urtetik gorako gazteei zuzendutako Irrati Tailerra Arrasate Irratian. 2 aukera: irratsaiolak egiteari zuzendutako tailerra eta kontrol tekniko ikasteari zuzenduta. Otsailaren 28tik maiatzaren 22ra, guztira 24 ordu, asteazkenetan 7etatik 9etara. Matrikula 3.000 pta. 1.500 pta. ikasle eta langabetuentzat.

• Etxeko emakume langileendako prestakuntza eta lanbide ikastaroa. Betebeharrak: Arrasaten bizitzea, 18 urte baino gehiago izatea eta ikastarora

agertzeko konpromezua. Iraupena, 3 hilabetekoa izango da otsailan hasita. Izenematea: Arrasateko Udal Emakumearen Sailean.


Lehiaketak

• "Gabriel Celaya IV. Olerki Internazionalaren lehiaketa". Gatzelania hizkuntza bezala duen edozein idazle har dezake parte. Epea: martxoak 29.

• "Errenteria hiriko II bideo lehiaketa". 16-30 urte bitarteko gazteek parte hartu ahal izango dute. Jatorrizko lanak VHS edo SVHS formatoan aurkeztuko dira gehienez 30 minutuko iraupena izanez. Epea: apirilak 12.

"Adinak odola hozten duenean eta iraganeko kontuak ditugunean plazerak, oroitzapenik maiteena azkenak jarraitzen du izaten eta gure gogoetatik gozoena lehenengo musuarena".

**LORD BYRON
OLERKARI INGELESA
(1788-1824)**



**Informazio gehiago:
GAZTE ZERBITZUA
Tfnoa: 77 00 65**

**Zatoz,
Markuleten
gaude!**

Markulete Industrialdea
21, 22 pabilioiak
ARRASATE
Tfnoa: 79 21 26



**Gu bisitatzeak
lan asko
kenduko dizu!**



Logelarako altzariak, lanparak, edredoak...



Bainurako guztia:
altzariak,
keramika,
griferia,
manparak...



Sukalderako altzariak, elektragailuak



Egongelarako altzariak, su-bajuak...

ETXEA JAZTEKO BEHAR DUZUN DENA.



ANEREA
GALERIA DEL HOGAR

**Profesional
onenak
bat eginda!**

OPEL VECTRA BERRIA



ARTEA MUGIMENDUAN



SEGURTASUNAREN ARTEA

Vectra berriak berarekin segurtasun ekipamendu berri eta osatuena dakar, **seriean bertsio guztietan**: ABS, tamaina handiko, Airbag mixtoa, Multilink atzealdeko suspentsioa, Opelen pedal atzeratzaile eksklusiboak, aldamenetako babes barra bikoitzak, bizitegi berrindartua, tentsore piroteknikodun zinturoiak, urrutiko itxitura zentralizatua, lapurreten aurkako blokeatzaile elektronikoa...

ARTEAREN TEKNOLOGIA

Vectra berria, artea eta teknologiaren arteko konbinaketa perfektua. Opel Ecotec motore berritzaileak bultzatua. Ekonomia, prestazio eta ekologian liderak. Vko sei zilindrodun 2.5 arekin eta 170 cv.ekin gaina hatzen duten motoreak.

Dieselaren maitaleentzat, turbodiesel bertsioak ekonomia eta prestaziotan erantzun ezinhoba eskaintzen du. Bertsio gehienetan seriean dator trakzioaren kontrol elektronikoa, teknologiaren irakasgai bikainena.

BERRIKUNTZAREN ARTEA

Lilugarria berrikuntzetan eta lilugarria diseinuan. 4 edo 5 atean eta bere bertsioetan: Base, GL, GT, CD eta CDX. Horrelakoa da Opel Vectra berria. Bere linea eksklusiboari esker bere kategorian aerodinamika koefiziente txikiena lortzen du, CX: 0,28.

Barrualdeko diseinuan erosotasuna eta isiltasuna nagusitzen dira.

Teknologia eta artearen arreko oreka esistitzen da.

OPEL VECTRA BERRIA.

ARTEA MUGIMENDUAN.

OPEL


TALLERES OLA

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. **BERGARA** (Gipuzkoa)
Zerbitzu Oficiala ARRASATEN

TAKOLO AUTOAK

Araba Etorbidea, 3.(Edif. Escatu). Tfnoak: 79 05 86

OPEL KONTZESIONARI OFIZIALAK, HOBEAK.